

Enplegu gehiago eta hobe
gizarte oreka gehiago, elkarbizitza
gehiago eta Autogobernu gehiago
eta hobe dituen Euskadi
eraikitzeko zutabeak

Gasteizen,
2016ko azaroaren 22an



I. LAU HERRI-ZUTABE NAGUSI

- 1. ENPLEGUA, BERRAKTIBAZIOA ETA IRAUNKORTASUNA**
- 2. GIZA GARAPENA, GIZARTE INTEGRAZIOA, BERDINTASUNA ETA KALITATEZKO ZERBITZU PUBLIKOAK**
- 3. ELKARBIZITZA ETA GIZA ESKUBIDEAK**
- 4. AUTOGOBERNU GEHIAGO ETA HOBEA**

AURKIBIDEA

- 1. ENPLEGUA, BERRAKTIBAZIOA ETA IRAUNKORTASUNA**
 - 1.1. Hazkunde sendoa, enplegu gehiago eta hobeak dakarrena
 - 1.2. Hazkunde iraunkorra
 - 1.3. Hazkunde arduratsu eta gardena

- 2. GIZA GARAPENA, GIZARTE INTEGRAZIOA, BERDINTASUNA ETA KALITATEZKO ZERBITZU PUBLIKOAK**
 - 2.1. Osasun eskubide unibertsala
 - 2.2. Gizarte oreka bermatzeko bikaintasunezko hezkuntza
 - 2.3. Elkarbizitzarako giza eta kultura garapena
 - 2.4. Integraziorako eta berdintasunerako agenda soziala
 - 2.5. Kalitatezko zerbitzu publikoak

- 3. ELKARBIZITZA ETA GIZA ESKUBIDEAK**
 - 3.1. Premisak
 - 3.2. Oinarrizko diagnostikoa
 - 3.3. Konpromisoak
 - 3.4. Agenda

- 4. AUTOGOBERNU GEHIAGO ETA HOBEA**
 - 4.1. Estatutuaren esperientziari buruzko aitzin hausnarketa
 - 4.2. Autogobernu aitortuaren defentsa eta eskakizuna
 - 4.3. Autogobernua barrura begira. Oraingo erakunde ereduari buruzko proposamenak
 - 4.4. Estatutu Hitzarmena eguneratzea

1. ENPLEGUA, BERRAKTIBAZIOA ETA IRAUNKORTASUNA

1.1. HAZKUNDE SENDOA, ENPLEGU GEHIAGO ETA HOBEA DAKARRENA

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

1. *Enplegua, gure lehentasuna.* Enplegua Jaurlaritza osoaren ekintza politikoaren oinarritzko ardatza da. Gure gizartearen erronka langabezia %10 baino beherago jaistera da. Horretarako, enplegu gehiago eta kalitate hobekoa sortzea zuzeneko helburu duten politika ekonomiko eta sozial publikoak pizgarritz hornituko ditugu. Politika publiko horiek aurrera eramateko, Esparru Programa batean bai berariazko enplegu politikak bai garapen ekonomikoan eragina duten politikak harmoniaz uztartu behar dira. Enplegua eta ekonomiaren berraktibazioa bereizi ezinik elkartuta daude.
2. Enplegu eta berraktibazio politika publikoa elkarrizketa sozialak lagundu eta bultzatu behar du, eragile ekonomiko eta sozialen artean etengabeko negoziazio-esparru bat finkatuaz eta Lan Harremanen Euskal Sistema indartuaz.
3. Enplegurako prestakutza kalitatezko enplegua bultzatzeko eta bermatzeko tresna garrantzitsuetako bat da. Eta aldi berean, enpresak teknologia eta antolakuntza erronka berrietara egokitzeko funtsezko tresna bat da.
4. *Industria lehiakorragoa ezagutzaren ekonomia batean.* Funtsezkoa da gure ongizaterako eta gure ekonomia garapenerako Euskadik ekonomia-ehun ahaltsu bat izaten jarraitzea, munduari irekia, eta berrikuntzaren bitartez eta bere giza baliabideen bitartez produktibitatea hobetzearen alde egingo duena.
5. Gure ehun industrialak modernizatu behar dugu “Basque Industry 4.0” estrategian aurrera eginaz, fabrikazio aurreratu eta adimentsuko sistema berriak erantsiaz eta heziketa eta prestakuntza sistemak ingurune berri honen eskakizunetara egokituaz. Ezagutzaren ekonomia lehiakorrago baterantz aldatzeak euskal berrikuntza sistema bultzatzearen alde argi jokatzeko eskatzen du. Berrikuntza, industria, nazioarteratzea eta inbestimendu produktiboa; horra hor, Euskadin ekonomiaren berraktibazioa eta enplegua oinarritzeko lau zutabeak, lau ildoak.
6. Talentua, pertsonen parte-hartzea eta lan-harremanen eredu berri gardenago bat giltzarri dira gure ekonomiaren lehiakortasunerako. Horregatik, enpresen eraldaketa bultzatuko dugu antolakunde lehiakorragoak izan daitezen eta enpresetako pertsonen parte-hartzea enpresetan handiagoa izan dadin.

Oinarri horietan tinko, enpleguaren alde eta ekonomia berraktibatzearen alde egiten dugun apustua konpromiso hauetan hezurmamitzen da:

KONPROMISOAK

1. Enplegurako eta Ekonomia Berraktibatzeko Esparru Programa.

2017ko lehen urte-erdian Enplegurako eta Ekonomia Berraktibatzeko Esparru Programa bat onartzea, legegaldi honen amaierarako langabezia tasak %10etik behera jaisteko helburuarekin. Langabeziaren aurkako borrokarako politiken esparruan, lan munduan txertatzeko zailtasunik handienak dituzten gizataldeen enplegarritasuna bultzatzeko eta errazteko ekintzei emango zaie lehentasuna (gazteak, 45 urte baino gehiagokoak eta iraupen luzeko langabeak, emakumeak eta mendeko pertsonak).

Esparru Programak berriazko enplegu plan bat edukiko du, hauek jasoko dituen: gazteen enpleguaren aldeko neurriak, emakumea ekonomia eta lan jardueran bete-betean txertatzea, tokiko eta eskualdeko enplegu planen bitartez lan munduratzea, enplegurako prestakuntza, ekintzailatza, ETEetarako langile autonomoentzako laguntza, tokiko merkataritza finkatzea eta “Renove” programak etxegintzan, bereziki intentsiboak lan sorkuntzan.

Horren osagarri, Esparru Programan inbestimenduaren, berrikuntzaren, nazioarteratzearen eta industria eta energia garapenaren arloetan ekonomia berraktibatzeko planak jasoko dira.

2. Lanbide berritu eta modernizatzea.

Enplegu zerbitzu publikoa, Lanbide, berritu eta modernizatzea, zailtasun handienak dituzten gizataldeei enplegu bilaketan laguntzeari eta lan munduratzeko ibilbide indibidualizatuak marrazteari lehentasuna emanik lan merkaturako orientazio, prestakuntza eta txertatze eginkizunak indartu ahal izateko tresnak emanaz. Berrantolaketa horretan, zerbitzu sozialekiko elkarlanari ekingo zaio izaera sozialeko prestazio ekonomikoak ebaluatu eta kudeatzeko, laguntza-hartzaileen aktibazioa eta lan munduratzea optimizatzea helburu izanik, gizarte bazterkeriazko egoeretan kroniko bihurtzea saihestuaz.

Eragile sozial eta ekonomikoekin akordio bat bilatuko da, Lanbide berritzen eta modernizatzen adostasun zabal-zabala bermatzeko.

3. Kualifikazio eta birziklatze profesionala.

Herri moduan, kualifikazio eta birziklatze profesionalaren alde jokatzeko enpresekin, unibertsitateekin eta lanbide heziketako ikastetxeekin elkarlan estuan jardunda, prestakuntza duala bultzatuaz eta praktikak enpresetan eta/edo erakundeetan egitea sustatuaz.

4. Elkarrizketa soziala eta parte-hartzea.

Elkarrizketa soziala eta langileek enpresetan parte hartzea bultzatzea, helburu horretara bideratutako diru laguntzen eta zerga-pizgarrien programak indartuaz.

Elkarrizketa soziala tresnarik onena bilakatu da Jaurlaritzaren eta gizarte-eragileen artean politika publikoak hitzartzeko gizarte eta lan arloan. Horretarako, gizarte-eragileen parte-hartze instituzionala garatzeko organo iraunkor bat sortuko da, Eusko Jaurlaritzaren eta ordezkari zabalena duten sindikatu eta enpresaburu antolakundeetatik hartan instituzionalki parte hartu nahi dutela adierazten dutenen ordezkariak osatua.

5. Enplegu politika pasiboaren eta Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoaren kudeaketa.

Politika pasiboak eta langabezia prestazioak Lanbide politikaren aktiboetan dagoeneko badarabiltzan prestatze eta txertatze ekintzei eraginkorrago lotzeko behar diren biltze eta aurrekontu-kudeatze tresna ekonomiko guztiak izan behar ditugu eskura. Horri dagokionez, eta Gernikako Estatuaren 18.2 artikulua eta bosgarren xedapen iragankorraren ildotik, Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoaren kudeaketa eskualdatzea mahairatuko diogu Estatuari, bai eta, Eskumenak Eskualdatzeko Bitariko Batzordean, elkartasun printzipioa eta sistemaren batasuna errespetatuaz, transferentzia hori arautzeko behar diren hitzarmenak negoziatzea ere.

6. “Basque Industry 4.0”. Euskal industriaren aldeko plan integrala.

Berrikuntza, fabrikazio adimentsuan aitzindari izatea eta industriara zerbitzu aurreratuak ekartzea ardatz dituen “Basque Industry 4.0” industrializazio plan estrategikoa garatzeko dugu, industria sektorea euskal BPGd-aren %25 izatera heltzea helburu hartuta. Oraingo Plana egokitu egingo da erakunde arteko berriazko ekintza plan sektorialak, euskal ekoizpen sistemaren dibertsifikazioa, unibertsitate heziketaren bultzada, lanbide heziketa duala, prestakuntza etengabea, atzerriko inbestimendu proiektuak erakartzea eta

prezio lehiakorreko zoru industrialaren eskaintza kontuan hartzeko.

7. ETEetarako laguntza eta zailtasunak dituzten enpresen berregituraketa.

Euskal enpresa txiki eta ertainek inbestimendu produktiboan eta finantzaketan dituzten beharrei laguntzeko finantzabide berriak eta abal publikoak bultzatuaz garatuko da ETEei laguntzeko politika.

Bestalde, Bideratu programa sendotuko da zailtasunetan dauden enpresak berregituratzeko tresna gisa. Partaidetza maileguak indartuko dira Luzaroren bidez, enpresak berregituratzeko behar diren inbestimenduei laguntzeko, eta zailtasunetan dauden enpresetarako banako konponbideak zehaztuko dira, tarteko diren eragile guztiekin koordinaturik jardunda.

8. Proiektu industrial estrategikoen garapena.

Proiektu industrial estrategikoen garapena bultzatzeko eta herri-gidari diren sektore eta jardueretan enpresen tamaina handitzea bultzatzeko konpromisoa. Horretarako, teknologian eta nazioarteratzen gaitasuna duten euskal enpresen hazkundera eta sustraitzea bermatzeko 250 milioiko funts publiko-pribatu bat bultzatuko da.

9. Ekintzailtzari laguntzea.

Ekintzailtzari laguntzea funtsezkoa da azken helburua lortzeko: “enpresa egitea”. Hortaz, foru aldundiekin elkarlanean, euskal gizartean ekintzailtzaren kultura aktibatzeke eta atzerriko ekintzaile talentua erakartzeko euskal ekintzailtza sistema bultzatuko da, batez ere gazteen artean, Euskadi ekintzaileen lurraldea izan dadin.

Planak neurri fiskalak eta pizgarri ekonomikoak jasoko ditu, bai eta enpresak sortzeko izapideak sinplifikatzeaz arduratuko den, ekintzaile izateko ekintza eta aholku zerbitzu guztien berri emango duen eta gazteen ekintzailtzari, emakume ekintzaileei eta autonomoei arreta eta laguntasun berezia emango dien “leihatila bakarra” sortzea ere.

10. Ikerketa, berrikuntza eta teknologia ardatz.

“RIS 3 Euskadi” espezializazio adimentsuaren estrategia garatzea, gutxienez bost urteko ziklo batean urtean aurrekontu publikoaren %5 hazteko konpromisoa hartuta, I+G+b-an erabiliaz arlo honetako inbestimendu publiko-pribatua bizkortzeko eta Euskadiren egoera Europako eskualde berritzaile gisa sendotzeko, I+G+b-ko inbestimendu publiko-pribatuaren %3rantz eboluzionatzea helburu hartuta.

100 ikerketa proiektu estrategiko garatzeko konpromisoa, Euskadi fabrikazio aurreratua, energia eta biozientzia/osasuna bezalako lehentasun estrategikoen ikerketa proiektuetan aitzindari kokatzeko.

Zientzia eta teknologiaren euskal sareko eragileekin, enpresekin eta unibertsitateekin elkarlanean talentu zientifikoa berreskuratu, erantsi eta sendotzeko Plan Berezi bat bultzatuko dugu; plan horretan, datozen lau urteetan euskal ekoizpen-ehunean gazte ikertzaileak txertatzeko helburuak zenbatetsiko dira.

11. Euskal enpresak nazioarteratzeko bultzada. “Basque Country” estrategia.

Nazioarteratzeko “Basque Country” euskal estrategia garatuko da, Nazioarteratzeko Euskal Partzuergoa bultzatuaz. Horren osagarri, “invest in Basque Country” estrategia indartuko da, atzerriko enpresak Euskadira lotzeko eta erakartzeko tresna gisa.

SPRIren antolakuntza eta jarduteko estrategiak berraztertu egingo dira eragile publiko eta pribatuei euskal ekonomia nazioarteratzen partaidetza handiagoa emateko, Nazioarteratzeko Euskal Partzuergoaren lana bultzatuaz.

12. Tokiko merkataritza, turismoa eta ostalaritza sustatzea.

Enplegua finkatzeko eta gure herri eta hiriak dinamizatzeko funtsezko elementua delako, tokiko merkataritzari laguntza emateko konpromisoa hartzen dugu. Euskadi bultzatuko dugu helmuga turistiko iraunkor, irisgarri, atsegin eta kultural gisa. Horretarako, Turismoaren Lurralde-antolamendu Plana idatziko da eta turismoaren eta euskal jatetxeen arteko sinergiak pizgarritz hornituko dira, Basque Culinary Center bezalako ekinbide arrakastatsuei balioa emanaz.

13. Euskal lehen sektorearen garapena.

Lehen sektorea funtsezko jarduera da aberastasuna eta enplegua sortzeko, eta nekazaritzako elikaduraren ikerkuntzaren bultzagile bat da.

Gainera, lehen sektorearen garapena eta sustapena ezinbestekoak dira lurraldearen orekarako, ingurune naturalaren defentsarako eta gure kultura iraunarazteko. Lehen sektoreari laguntzeko politika ondorengo hauetan oinarrituta garatzeko konpromisoa hartzen dugu:

- Hiriguneari parekatzeko moduko bizi baldintzak bermatuko dituzten azpiegitura eta zerbitzuen hobekuntzan.
- Ekintzailetzaren sustapenean eta tokiko ekoizkina merkaturatzearen sustapenean.

- Sektorea gaztetzeko eta modernizatzeko programen bultzadan.
- Azpisektore guztien lehiakortasuna hobetzeko berrikuntza eta ikerketa estrategia integral baten garapenean: nekazaritza, arrantza, basogintza eta abeltzaintza azpisektoreena.
- Itsasertzeko eskualdeen dibertsifikazioan, balio erantsi handiagoa, aberastasuna eta enplegua ekarriko duten akuikultura eta arrantza ekoizkin berriak garatuaz.

14. Energia politika lehiakor eta iraunkor bat.

Teknologia eta enpresa garapenaren aldeko eta energia berriztagarri eta iraunkorrak erabiltzearen aldeko apustua berregiten dugu.

Berretsi egiten ditugu Garoñako indarretxea ixtearen aldeko konpromisoa eta haustura hidraulikoa ez erabiltzeko konpromisoa, Eusko Legebiltzarrak onartutako legearen arabera.

Konpromisoa hartzen dugu euskal enpresek jasaten dituzten argindarraren gainkostuak behin betiko kentzea Espainiako Gobernuaren aurrean elkarrekin defendatzeko, eta Estatuaren araudi aldaketa bultzatuko dugu arlo honetan.

Diru-laguntza programak garatuko ditugu energia aurrezki eta efizientzia proiektuak pizgarritz hornitzeko eta ibilgailu elektrikoaren zabalkuntza bultzatzeko, baterien eta birkargarako azpiegituren garapena bereziki nabarmenduaz.

Eusko Legebiltzarrera 2016ko uztailean bidali zen legegaiaren arabera Energia Iraunkortasunaren Legea onartzea bultzatuko dugu.

Helburu hauek ezartzen dituen energia iraunkortasunaren lege bat bultzatuko dugu:

- Energia aurrezki eta efizientzia.
- Energia berriztagarrien garapena.
- Energia eskubide eta eginbeharrak.
- Mugikortasun elektrikoaren eta mugikortasun iraunkorraren sustapena.
- Energia kontsumo gutxiko eraikuntza eta etxegintzaren garapena.
- Energia igaroaldia bultzatzeko administrazio, araudi eta ekonomia neurrien garapena.

Halaber, Euskadiren Energia Estrategia sektorez sektore garatuko dugu datorren hamarkadarako, 2030 helburu hartuta, eta Europarekiko energia konexioa bultzatuko dugu gasaren eta argindarraren hornikuntzan.

15. **Gizarte ekonomiaren alde.**

Horretarako pizgarritz hornituko dugu gizarte ekonomiako enpresa berrien sorrera eta ekonomia sektore guztietan daudenak garatzea. Beren jarduera ahalmena indartzeko partzuergoak eta lankidetzak sareak eratzeari laguntza emango diogu. Eta Jaurlaritzatik zeharretara ekingo diogu, berrikuntza, kalitate, transferentzia teknologiko eta informazio teknologien ezarpenaren arloetan sektore honi laguntza emateko. Gizarte ekonomiaren heziketa eta informazioaren zabalkundea hezkuntzaren maila eta eremu guztietan egiteko konpromisoa hartzen dugu. Halaber, Lanpara funtsa handituko dugu, langileek zailtasunetan dauden enpresak erostea errazteko.

16. **Gizarte egoera ahuleko eskualde eta udalerrietan jarduteko berariazko planak.**

Foru aldundiekin eta egoera horretan dauden udalerriekin elkarlanean, egiturazko aldaketa handiak jasaten ari diren eremuetan edo Europar Batasunaren Eskualde Laguntzen Mapak (DAR) jasotzen dituen krisi larriak jasaten ari direnetan jarduteko programa integralak aktibatuko dira.

Halaber, indize sozioekonomiko larriagoak dituzten udalerriak, EAEren batez bestekoa baino langabezia tasa nabarmen handiagoak jasaten dituztenak, altzairuaren krisiak bereziki eragin dienak edo, puntako enpresak itxi edo lekualdatu dituztelako, enplegu galera handiak pairatu dituzten udalerriak ekonomikoki eta sozialki dinamizatzeko tokiko eta/edo eskualdeko garapen planak bultzatuko ditu Eusko Jaurlaritzak, bere eskumen esparruaren barruan, eta foru aldundiekin eta egoera horretan dauden udalerriekin elkarlanean.

Planek jarduera intentsiboa eta diskriminazio positiboa jasoko dituzte enplegu programetan, bazterkeriaren aurka borrokatzean, prestakuntza egitarauetan, hiri-berroneratze programetan, lurzoru industrialak berreskuratzekoan, ekonomia berraktibatzean eta I+G+b programetan.

17. **Laneko osasuna eta segurtasuna.**

Konpromisoa hartzen dugu gizarte-eragileekin batera lan egiteko lan baldintzak hobetzera begira. Ildo horretan, konpromisoa hartzen dugu enpresetako prebentzio ordezkariekin prestakuntzarako ekintzak bultzatzeko, laneko istripuei buruzko erregistroak eta informazioa modernizatzeko, horien ikerketari argitasun handiagoa emate aldera, eta gaixotasun profesionalak detektatu eta ezagutzeko protokoloak garatzeko.

Lan ikuskaritza funtsezko tresna dela deritzogu laneko legediaren kalitatea eta betetzea bermatzeko. Ildo horretan, ikuskaritza zerbitzuak indartuko ditugu, eta lan kontratazioko irregulartasunak eta lan iruzurra detektatzera eta lantokietan lan baldintzak zaintzera eta horiez informatzera bideratutako ikuskapen

kanpainak bultzatuko ditugu.

1.2. HAZKUNDE IRAUNKORRA

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

1. *Lurralde sozial, orekatu eta iraunkor bat.* Euskadi lurralde orekatu eta iraunkor bat izan dadin hezurmamitu nahi dugu, ingurune degradatu gutxiago izango dituen, berroneratzearen eta bizi kalitatearen alde egingo duena eta pertsonak, une oro, kontuan izango dituen. Bai fisikoki bai sozialki elkarri lotutako lurralde bat.
2. *Ingurumen politika arduratsua.* Euskadik konpromisoa hartuta dauka garapen iraunkorarekin eta berotegi efektuko gasen isurketa %20 gutxitzeko erronkarekin.

Erronka horrek aldaketa handiak eskatuko ditu energia politikan, garraio sisteman, nekazaritza eta abeltzaintza ereduan, gure lurraldearen hiri eraketako dinamiketan, gure industriaren ekoizpidean, etxeetan hondakinak kudeatzen eta uraren eta energiaren kontsumoan jartzen duten arretan, eta pertsonen ondasun eta zerbitzuak erosteko egunero hartzen dituzten erabakietan. Azken baten, ingurumen trantsizioko prozesu bat, erakunde publiko eta pribatuak ez ezik euskal gizarte osoa tartean harrapatzen duena.

3. *Garapenerako azpiegiturak.* Ziur gaude, eta ados, azpiegitura berdeak, hiri garraioan energia berriztagarriak erabiltzea eta eraikinen energia efizientzia giltzarri direla Euskadi klima aldaketaren aurrean eta 2015eko abenduko Parisko Gailurrean hartutako konpromisoen aurrean kokatzeko.
4. *Mugikortasun iraunkorra.* Baliabide mugatuak dituen planetan honetan, garraio eredu iraunkor eta efiziente baterantz eboluzionatu beharra aldeztu dugu. Garraio sistemak integratzearen alde egiten dugu, garraiorako bideratzen diren baliabide ekonomikoak, baliabide materialak eta giza baliabideak iraunkorrak izan daitezela bilatuaz. Garraio sistema iraunkorrak bultzatzeak lehentasuna ematen dio garraio bide nagusi moduan burdinbidea erabiltzeari.

Oinarri horietan tinko, garapen iraunkor eta ingurumenarekiko arduratsu baten alde egiten dugun apustua konpromiso hauetan hezurmamitzen da:

KONPROMISOAK

Ingurumen politika arduratsua.-

1. Karbono gutxiko ekonomia lehiakor bat bultzatzea.

Gizarte erantzukizuna bultzatuaz klima aldaketa geldiarazten lagunduko duena. Horretarako, energia aurrezki eta efizientzia sustatzeko programak garatuko dira, energia berriztagarrien erabilera bultzatuko da %20 jo arte, eta eraikuntza iraunkorra, ekodiseinuaren sustapena eta garraio publikoaren erabilera indartuko dira.

2. Ekonomia zirkularra bultzatzea.

Foru aldundiekin koordinatuta, zerga sistema berdearen tresnak mahairatuko dira. Horren osagarri, hondakinak berrerabiltzea, birziklatzea eta balioztatzea pizgarritz hornituko dituzten tresna ekonomikoak bultzatuko dira.

Halaber, enpresen gizarte erantzukizun korporatiboko politiken barruan ingurumen protokoloak txertatzea sustatuko da.

3. Lurralde antolamenduaren gidalerro berriak.

LAGen lurralde estrategia berraztertzen amaituko da, eta lurralde plan partzialak eguneratuko dira. Biztanle dentsitate handiagoak hobetsiko dituen eta erabilerak konbinatzea eta lurzorua berrerabiltzea indartuko duen lurralde antolamendu argi bat onartuaz gune degradatuak berroneratzea eta ekosistemen galera mugatzea da helburua. Halaber, indarrean dagoen hirigintza legedia berraztertuko da iraunkortasun irizpideetara egokitzeko eta hiriberritze prozesuak bultzatzeko.

4. Ingurumenaren, Klima Aldaketaren eta Izadiaren Kontserbazioaren Legea.

Ingurumenaren, klima aldaketaren eta izadiaren kontserbazioaren lege orokor bat egitea, arlo honetan dagoen legedia integratu eta eguneratuko duena, isurketen murrizketa helburuak jarriko dituen eta klima aldaketaren aurkako borroka bultzatzeko neurri arautzaileak ezarriko dituen.

5. **Emplegu berdea.**

Ekintzailtza eta enplegu berdea bultzatuko da, bai eta ekosistemen esparruko ikerketa eta berrikuntza; gorako sektore honi lotutako jarduerak enpresa berriak sortzeko eta lanpostu berriak sortzeko ematen dituzten aukerak aprobetxatzea helburu dugula.

6. **Ingurune naturalaren kalitatea hobetzea.**

URA Uraren Euskal Agentziak irabazitako esperientzian oinarrituta, uraren kalitatea bermatuko duen eta xahutzea, espekulatzea eta kutsatzea borrokatuko duen ur politika bat bultzatuko da. Uraren hornikuntza, saneamendu eta arazketa azpiegitura hidraulikoak garatu eta eraikiko dira, dagoen plangintzaren arabera.

OMEaren gomendioen ildotik airearen kalitatea hobetzea sustatuko da, lurzoru kutsatuen ikerketa eta berroneratze proiektuak pizgarritz hornituko dira.

7. **Politika publikoetan ingurumen aldagaia integratzea.**

Ingurumenari dagokionez administrazio publiko eredugarria eratzen jarraituko da, erosketa publiko berdearen ekinbideak bultzatu eta sustatuaz. Ingurumen kudeaketa prozedurak eta izapideak sinplifikatu egingo dira. Halaber, Ingurumen aldagaiak erantsiko dira, bereziki Natura 2000 Sarea, nekazaritza eta basogintza politikan, foru aldundiekin elkarlanean.

Mugikortasun iraunkorra eta garraio publikoa.-

8. **Garraio publikoa eta intermodalitatea.**

Garraiobideen lotura bultzatuko dugu, bai pertsonen garraioan bai salgaienean, garraio publikoaren sare integratu eta koordinatu bat indartuaz, mugikortasun motorizatua gutxitzeko hurbiltasun zentro logistikoak garaturik lurralde bakoitzean dauden aukera guztiak balioetsi eta eskaintza arrazionalizatuko duen sare bat.

9. **Mugikortasun Iraunkorraren Legea.**

Mugikortasun Iraunkorraren Legea onartzea, tarifa diseinuaren eta operatzaile koordinazioaren elementu komun guztiak integratuko dituen, zerbitzu prestazioa bermatu eta haien lankidetzak ekonomiko eta teknologikorako bideak jasoko dituen eta klima aldaketaren aurkako borrokan lagunduko duten energia garbien erabilera eta ingurumenerako iraunkorrenak diren

garraioak bultzatuko dituen legea, hain zuzen.

Nolanahi ere, eta bere edukiaren arabera, balioetsi egingo da lege hau Ingurumenaren, Klima Aldaketaren eta Izadiaren Kontserbazioaren Lege Orokor bakar batean sartzearen egokitasuna.

10. Txartel bakarra.

Tarifa integratioko eta txartel bakarreko sistema bat ezartzea Euskadiko garraio publikoaren operatzaileetan; garraio publikoaren erabilera pizgarritz hornitu eta indartze aldera eta kudeaketa gastuak murrizte aldera, ordaintzeko bide teknologiko eta tarifazio modu berriak bultzatuaz.

11. Euskadiko Garraio Agintaritzaren barruan garraio agintaritzak koordinatuta jardutea.

Euskadiko Garraio Agintaritzaren Legea aldatzea, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako garraio agintaritzak Euskadiko Garraio Agintaritzaren barruan sartu eta garatzeko, beren harremanak, antolaketa eta funtzionamendua argituaz, eta Euskadi osoan jarduera integratu bat bideratuko duten koordinazio tresnak indartuaz.

Garapen iraunkorrerako azpiegiturak.-

12. Euskadi, korapilune logistikoa. Euskal Y amaitzea.

Penintsula Iberikoaren eta Europaren artean Ardatz Atlantikoaren giltzadura izateko Euskadik duen egongunea indartzeko konpromisoa, euskal Y azpiegitura eraikitzen amaitzeko Estatuari bere konpromisoak bete ditzala eskatuaz eta hirien integrazioari konponbidea emanaz hiriburuetan eta Irunen.

- AHT Donostian Atotxako geltokiraino helarazita.
- AHT Bilbon Abandoko geltokiraino sartuta, gaur egun dagoen burdinbide zabaldia lurrazaletik kendurik.
- Gasteizen burdinbidea lurpera eramanda, hiriak gune berriak irabaz ditzan.
- Irunen geltoki berri bat eraiki eta lurpean eginda, mugakoa dela kontuan harturik, eta 2011ko martxoan Ministerioarekin izenpetutako protokoloaren arabera.

“Basque Country Logistics” lankidetzaren publiko-privatuaren eredu bultzatzea, plataforma logistikoa eta intermodal berriak garatzeko: Jundiz-Foronda, Lezo eta Arasur.

Euskal hirien artean “intercity zerbitzuak” garatzea eta tren autobideak bultzatzea.

13. Burdinbidezko garraioa hobetzea.

Burdinbidezko garraioaren hobekuntza arloan hauek dira guk hartu ditugun konpromisoak:

- Renferen eta Feveren aldirietako lineen transferentzia eskatzea.
- Euskotren sarearen hiri integrazioa hobetzea hirietan, dagozkien udalekin hitzarmenak eginaz.
- Donostialdeko metroa eraikitzen jarraitzea, Donostiako alderik aldekoa eraikiaz eta Loiolako Erriberako trukagailu berria bukatuz.
- Gasteizko tranbia Unibertsitatera eta Salburura luzatzea, eta gero Zabalgana auzora.
- Bilboko tranbia luzatzea, tranbia eraztuna osatzeko helburuan aurrera egiteko.
- Metroaren 3. linea guztiz amaitzea, eta 4. linea eta 5. linea aztertzen jarraitzea.
- Eta Loiuko aireportura burdinbidezko lotura diseinatzea.

14. Jarduera integral eta koordinatua portu eta aireportuetan.

Aireportu arloan egiteke dagoen transferentzia eskatzea, Loiu, Foronda eta Hondarribiko aireportuen kudeaketa eredu koordinatu eta osagarri bat ezartzeko.

Bilboko eta Pasaiako portuen kudeaketaren transferentzia eskatzea, kudeaketa deszentralizatu bat garatzeko eta zentro logistiko intermodalekin dituzten konexioak optimizatzeko.

15. Pasaiako badia berroneratzea.

Konpromisoa hartzen dugu, erakundeen artean behar diren akordioen bitartez, Pasaiako badiaren berroneratze progresiboa garatzen jarraitzeko eta bere ingurunea berreskuratzeko.

1.3. HAZKUNDE ARDURATSU ETA GARDENA

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

Kudeaketa arduratsua.-

1. Eusko Jaurlaritzaren eta euskal erakunde guztien kudeaketa ekonomikoak zorroztasun eta erantzukizun printzipioari jarraitu behar dio. Finantzen saneamendua eta aurrekontu orekaren helburuekiko konpromisoa mantendu behar da iraunkortasun ekonomikoaren bermea delako. Erantzukizun printzipioan oinarrituta, Europako politika berri bat nahi dugu, defizit publikoaren kontrola, alde batetik, eta enplegua sortzeko ezinbestekoak diren ekonomia berraktibatzeke neurriak, bestetik, modu orekatuagoan konbinatuko dituen politika.
2. Pertsonen oinarrizko beharrekiko sentiberatasunak eta konpromisoak erakunde publikoen ekintzaren funtsezko printzipioa izaten jarraitu behar dute. Funtsezko zerbitzu publikoak eta gizarte politikak bermatzea Euskadiko kohesioa eta bizi kalitatea oinarritzeko ardatza da. Kalitatezko hazkunde ekonomiko baten alde gaude, baina desberdintasuna areagotuko ez duena. Ildo horretan, kontu publikoen baterakuntzari eta zorroztasun ekonomikoari eta aurrekontuenari ekingo zaio, gure ongizate mailari, funtsezko zerbitzu publikoei eta ekonomia produktiboaren eta hazkundearen bultzadari kalterik egin gabe.
3. Eusko Jaurlaritzak Euskal Herriko Ogasun Orokorrari dagozkion gaien araudi eraginkor, moderno, egonkor eta garden bat garatuko du, euskal administrazio publikoen finantza askitasuna bermatzen jarraituko duen baliabideen banaketa eredu bat finkatuaz. Sarrera eta gastu publikoen artean oreka bikain bati eutsiko dion zerga sistema ekitatezko, progresibo eta nahikoa zaindu behar dela deritzogu.
4. Zerga iruzurraren eta ezkutuko ekonomiaren aurkako borrokak etengabeko helburu adostua izan behar du euskal administrazio publiko guztirako, plan bateratu eta koordinatuak dituenak.

Kudeaketa ireki eta gardena.-

5. Gardentasuna, eraginkortasuna, parte hartzea eta emaitzak ebaluatzea oinarri izango dituen administrazio kultura berri baten zutabeak eraiki nahi ditugu. Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean aldarrikatutako gobernu ona eta administrazio ona izateko eskubidearen ardatz bermatzaileak izan behar dute plangintzak eta herritarren parte-hartzeak.
6. Gardentasuna eta herritarren parte-hartzea lehentasunez eta zeharretara erabili behar diren zertzeladak izatera heldu dira. Sareak sortzeko eta herritarren eskaerak entzun, artatu eta partekatzeko gai den administrazio publiko eredu baten alde gaude. Herritarren parte-hartzea demokraziaren ideiarekin bihotz-bihotzean dago; herritarrekiko elkarrizketa arazoei ekiteko, konponbideak entzun eta partekatu, hori izango da gure bidea.

Oinarri horietan tinko, hazkunde arduratsu eta garden baten alde egiten dugun apustua konpromiso hauetan hezurmamitzen da:

KONPROMISOAK

Finantza publikoen kudeaketa arduratsua.-

1. Ekonomia Ituna eguneratu eta aldezte.

Estatuarekin akordio bat egitea 2007-2011 bost urteko aldiari dagozkion kupoetan egiteke dauden likidazioetarako eta 2012-2015 aldiari dagozkion behin-behineko kupoen behin betiko likidaziorako. Kupoak finkatzeko metodologiaren bost urterako lege berri bat onartzeko behar diren akordioak bultzatzea.

2. Erantzukizuna eta defizit publikoaren helburua betetzea.

Euskadiri dagokion defizit publikoaren helburua mantentzeko eta euskal herrizor maila egonkortzeko konpromisoa, Europar Batasunak ezarri eta Estatuaren egonkortasun planean jaso diren helburuen arabera. Kontu publikoen baterakuntza hori gizarte politikei, eta oinarrizko zerbitzu publikoei kalterik egin gabe gauzatuko da.

3. Hazkundearen eta elkartasunaren mesederako zerga eta finantza politika.

Hazkundearen eta elkartasunaren mesederako zerga eta finantza politika bat sustatzea; zerga koordinazioko organotik, jarduera ekonomikoa, berrikuntza eta enplegua pizgarritz hornitzeko behar den zerga araudia eguneratzea, batetik, eta gizarte politiken eta oinarritzko zerbitzu publikoen sostengua, bestetik, bultzatuaz.

Edozein zerga aldaketa onartu aurretik zerga sistemari gurutuko osoko bilkura monografiko bata egitea bultzatuko dugu, autonomia erkidego osoko zerga politika ebaluatu, orientatu eta harmonizatze aldera.

4. Zerga iruzurraren aurkako borroka.

Zerga iruzurraren eta ezkutuko ekonomiaren aurkako ekintza koordinatua bultzatzen jarraitzea. Hortaz, eta Eusko Legebiltzarrean 2013ko irailean onartutako ebazpenekin bat etorrira, legealdi honetan zerga iruzurraren aurkako plan integralen garapenari ekingo zaio foru aldundiekin lankidetzan eta horiekin koordinatuta. Plan horiek kapitulu honegatik biltzeko helburuen urteko zenbatespena jasoko dute eta iruzurraren aurkako prebentzio eta borrokaren arloan ekintzen katalogo bat ezarriko dute, ikuskaritza zerbitzuak indartuko dituen, eta dauden informazio sistemak koordinatzeko eta optimizatzeko aukera emango duena, zerga iruzurraren kontrol, jarraipen eta penalizazio ekintzak areagotze aldera.

Administrazio ireki, garden eta eraginkorra.-

5. Euskal Enplegu Publikoaren Legea.

Euskal administrazio guztietarako enplegatu publikoen eredu komun bat ezarriko duen Euskal Enplegu Publikoaren Legea onartzea. Araudi berria enplegu publikoaren erakunde kalitatea hobetzera orientatuko da; sindikatuen eta enplegatu publikoen parte-hartzea, haien profesionalizazioa, lanpostuak betetzeko moduak eguneratzea, bitartekotasuna gutxitzea eta enplegu publikoa finkatzea bultzatuko duten elementuak sartuz, administrazio publikoaren funtzionamendu onari kalterik egin gabe eta Eusko Jaurlaritzak 2015eko abenduaren 1ean onartu zuen Euskal Herriko Administrazio Orokorraren Enplegu Planean azaltzen diren baldintza eta eretan sindikatuekiko adostasuna bilatuaz.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak 2015eko abenduaren 1ean onartu zuen Euskal Herriko Administrazio Orokorraren Enplegu Plana betetzeko prozesuari jarraibidea emateko konpromisoa ere hartzen dugu, Administrazio Publikoaren langileria berri eta gaztetzeari bultzada emate aldera, datozen urteetan erretiroa hartuko duten enplegatu publikoak ordeztzeko prozesuari ekiteko.

6. Sektorre publikoaren sinplifikazioa.

EAEaren sektore publikoaren egitura berrantolatu eta sinplifikatzea, enpresa sektore publikoa berrantolatzen hasitako prozesuari jarraibidea emanaz, tarteko diren gainerako eragile eta erakundeekin elkarlanean.

Lurralde Historikoek beren erakundeen antolaketa, erregimen eta funtzionamendurako dituzten eskumenen eta udalen antolaketa eskumenen kalterik gabe, ezaugarri hauek izango dituen Euskal Sektorre Publikoaren Antolaketa eta Funtzionamenduaren Legea onartu eta garatuko da:

- Euskal sektorre publiko guztiari printzipio orokor komunak aplikatzen zaizkiola bermatzea.
- Langileriaren, aurrekontu eta enpresa finantzaketaren eta fundazio publikoen arloetan kontrol formulak eranstea.
- Euskal sektorre publikoan bikoiztasunak eta errepikapenak saihestea, enpresa eta baltzu publikoen bilbe guztia arrazionalizatu eta sinplifikatuaz.

7. Efizientzian eta berrikuntzan oinarritutako administrazio publiko hurbilago bat.

Berrikuntza Publikoko Planaren gidalerroen arabera, administrazio publikoa herritarren zerbitzura jartzeko baliabide materialetan eta giza baliabideetan behar diren egokitzapenak egiteko konpromisoa hartzen dugu, paperik gabeko administrazioa eta administrazioen arteko benetako interoperagarritasuna behin betiko burutuaz, produktibitatea areagotzea, prozesuak sinplifikatzea eta administrazio zamak ezabatzea ekarriko duten plataforma eta izapide sistema elektronikoak erabilirik.

Halaber, gidalerro horiei jarraituaz, lanpostuen zerrendaren balioespen berri bat egiteari ekingo diogu, hizkuntza eskakizunak egokitu eta eguneratzeko prozesuarekin jarraituko duen euskal administrazio moderno, telematiko, zero papereko eta garden berri horri egokitzeko.

Datu irekitasun eta berrerabilteze politika baten esparruan “open data” datu irekien plan operatiboa garatzea.

8. Gardentasunarekiko konpromisoa.

Euskal Sektore Publikoaren Gardentasun, Herritarren Parte-hartze eta Gobernu Onaren Lege baten onarpena bultzatuko da, informazio publikoaren zabalkundea, ulertzea, argitasuna, irisgarritasuna, egiatasuna eta herritarrek erabiltzea bermatzeko helburuz, bai eta administrazioaren eta herritarraren artean noranzko biko harremana sustatzeko ere.

Jaurlaritzaren barruan Sail arteko Gardentasun Batzordea eratuko da, eta etengabeko jarraipen eta ebaluazio sistema bat ezarriko da gobernu jardueraz, erakunde independenteek egiten dituzten gardentasun ikuskapenetan aitzindariak izaten jarraitzeko.

Lehentasuna emango diogu Jaurlaritzaren informazioaren publizitate aktiboari aurretiazkotasunez, herritarrek eskatu beharrik gabe.

9. Kontratazio publikoa eta gizarte erantzukizuna.

Era berean, kontratazio publikoaren prozesuetan izaera sozialeko klausulak txertatuko ditugu, klausula sozialak kontratazio publikoan sartzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legean eta kontratazio publikorako ingurumen irizpideen euskal araudian xedatutakoaren arabera.

10. Gasteizen hiriburutasun kanona.

Gasteizen hiriburutasun kanona berraztertzea, erakunde komunen egoitzak mantentzeagatik hiriak duen zama konpentsatzeko elementua baita.

2. GIZA GARAPENA, GIZARTE INTEGRAZIOA, BERDINTASUNA ETA KALITATEZKO ZERBITZU PUBLIKOAK

2.1 OSASUN ESKUBIDE UNIBERTSALA

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

1. Osasuna gizakiaren funtsezko eskubide bat da. Zentzu horretan, uste dugu pertsonak osasun-sistemaren ekintzaren ardatz nagusia direla; ados gaude beharrezkoa dela euskal osasun-sistema finkatzea, unibertsala eta zuzena. Hala, kalitatezko osasun-zerbitzuen estaldura eta irisgarritasuna bermatuko zaie Euskadin bizi diren pertsona guztiei, Antolamendu Sanitarioaren Legean oinarrituz.
2. Sistemaren kudeaketa publikoa indartuko dugu eta osasun-zentro eta zerbitzuen titulartasun publikoa mantenduko dugu, sektore pribatuak justifikatuta dauden egoeretan izan dezakeen paper osagarria gorabehera; parte-hartze horrek beti errespetatuko ditu gardentasun, kalitate eta kontrol irizpideak.
3. Guretzat osasuna banakako ondasuna eta gizartearen ondare komuna da, erakunde guztiek zaindu eta babestu beharrezkoa, 2013-2020 Osasun-planarekin bat etorriz. Horretarako, bizitza-estilo, balio eta ohitura osasuntsuak sustatuko dira, dieta, ariketa fisikoa edo tabakoaren, alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoa bezalako gaiak kontuan hartuz.
4. Aldaketa demografikoek, besteak beste, herritarren zahartze mailakatuak, behar berriak eragiten dituzte; horregatik, arreta integratuko eredu batean aurre egitea funtsezkoa da, gaixotasun kronikoen tratamendu jarraitura bideratutakoa, gizarte-osasun arreta finkatuz eta lehen mailako arretaren papera indartuz. Hori guztia, pertsona guztien beharrei arreta egokia ematen zaiela bermatzeko, baita sistemaren iraunkortasuna ere.
5. Profesionalak dira osasun-sistemaren aktibo eta indar nagusia; ikuspuntu horretatik, osasun-enplegu egonkorra eta kalitatezkoa finkatzeko eta sustatzeko lan egingo dugu, baita rol profesional berriak garatzeko ere.
6. Konbentziturik gaude biozientzien eta osasunaren eremuko ikerkuntzan eta berrikuntzan inbertitzea funtsezkoa dela pertsonen osasuna hobetzeko, osasun-sistemaren eraginkortasuna handitzeko eta Euskadin enplegua eta aberastasuna sortzen laguntzeko.

Oinarri horiek kontuan hartuta, osasun eskubide unibertsalaren aldeko apustua honako konpromiso hauetan gauzatzen da:

KONPROMISOAK

Unibertsaltasuna-Irisgarritasuna.-

1. Osasun-sistemaren estaldura unibertsala eta irisgarritasuna bermatzea.

Hitz ematen dugu euskal herritar guztientzako osasun-estaldura mantenduko dugula, Euskadiko Osasuna Antolatzeko Legean ezarritakoaren arabera.

Osasun-sistemaren irisgarritasuna hobetze aldera, zuzenekoak ez diren harreman-bideak finkatuko dira, osasun-sistemaren hurbiltasuna eta irisgarritasuna errazten dutenak. Era berean, irisgarritasun-forma berriak sustatuko dira, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak gehituz (IKT). Zentzu horretan, zerbitzu telematikoak sustatzen jarraituko dira, gaixotasun kronikoak dituzten pazientei etxez-etxeko arreta emateko.

Aldi berean, herritarren parte-hartzea indartuko da osasun-zerbitzuen orientazioan eta erabakiak hartzeko eremu desberdinetan. Lankidetzeta sustatuko da pazienteen elkarrekin, gaixotasunaren inguruko ezagutza eta bizi-kalitatea hobetzera bideratutako tresnak garatzeko.

2. Zuzentasuna babestea osasun-arretan, genero-ikuspegian eta talde ahulenetan arreta berezia jarritz.

Osasun-maila baxuagoak dituzten pertsonen bideratutako jarduketa espezifikokoak garatuko dira, desberdintasunak saihesteko. Hala, arreta berezia jarriko da adineko pertsonengan, ezgaitasunen bat duten pertsonengan, immigranteengan, gaixotasun mentalak dituzten pertsonengan eta askatasunik ez duten pertsonengan.

Zentzu berean, plangintza bat proposatuko da Hepatitis C duten paziente guztiei gaixotasuna desagerraraztea ahalbidetzen duten tratamenduak emateko. Halaber, gaixotasunaren antzemate goiztiarra egiteko eta hori barreiatzea saihesteko plan bat ezarriko da.

Era berean, genero-ikuspegia sustatuko da osasun-arloko jarduketa guztietan, emakumezkoen berezko gaixotasunei erantzun espezifikoko bat emateko.

Aldi berean, zenbait mekanismo abiaraziko dira, Haurrentzako Hartz-arreta programan sartutako haurren parte-hartzea sustatzeko.

Pertsonak ardatz nagusi.-

3. Zerbitzuen zorroa.

Uste dugu beharrezkoa dela Zerbitzuen Zorro bat ezartzea, osasun-sistemetan zuzentasuna sustatzeko eta herritarren osasunari arreta egokia ematen zaiola bermatzeko, prestazioak eta horien iraupena homogeneizatuz.

4. Zainketa aringarrien eta gaixotasun kronikoei arreta emateko plana hedatzea.

Hitz ematen dugu zainketa aringarrien arreta unibertsala izango dela, paziente kronikoen bizitza hobetzeko. Ondorio horietarako, Euskadiko Zainketa Aringarrien Planean jasotako lerroak garatuko dira eta bertan proposatutako ekintza guztiak ezarriko dira.

Bereziki, bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna bermatzeko Legean xedatutakoa hartuko da kontuan.

Zehazki, Ospitalizazio-unitateen sorkuntza bultzatuko da paziente kronikoentzat, pazienteei tratamendu globala ematen dietenak.

Gaixotasun kronikoak dituzten pazienteen errehabilitazioa sustatzea.

Plan integral bat ezarriko dugu endekapenezko gaixotasun neurologikoentzat: Alboko esklerosi amiotrofikoa (ELA); esklerosi anizkoitza; Parkinson, Alzheimer, etab.

5. Itxarote-zerrendak ezarritako ratioen azpitik mantentzea.

Arreta espezializatuko eta froga osagarrietako kontsultak izateko epeak murriztera bideratutako neurriak ezarriko dira.

Prozedura kirurgikoetarako batez besteko itxarote-denbora martxoaren 21eko 65/2006 Dekretuak ezarritako ratioen azpitik mantentzea bermatuko da; dekretu horren bidez, Euskadiko Osasun Sistemaren konturako prozedura kirurgiko programatuetara eta urgenteak ez direnetara iristeko gehienezko epeak ezarri ziren.

6. Plan estrategiko onkologikoa.

Plan Onkologiko bat garatuko dugu; bertan, Euskadiko baliabide onkologiko guztiak sartuko dira. Helburua gaixotasun honen arreta planifikatzea eta hurrengo urteetarako arreta-estrategiak eta helburuak ezartzea izango da, oraingo egoeraren azterketan oinarrituz eta Euskadiko onkologiaren bikaintasun-helmuga definituz.

7. Pertsonen erantzunkidetasuna sustatzea osasunaren zainketan.

Horretarako, “Osasun-Eskola” ekimena indartuko da, haurtzarotik bizitza-estilo osasuntsuagoak sustatzeko, baita osasun-zerbitzuen erabilera egokia ere.

Hala, babes espezifikoa eskainiko zaie gaixotasun kronikoak dituzten pazienteei, dituzten osasun-arazoak kontrolatzeko.

8. Pazienteari informazio eta arreta pertsonalizatuak, osoak eta kalitatezkoak eskaintzea.

Hitz ematen dugu pazienteari informazio eta arreta pertsonalizatuak, osoak eta kalitatezkoak emango dizkiogula, osasun-arreta pertsonala eta berezia sustatuz.

Horrela, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak sartuko ditugu, herritarrek harreman arinagoa izan dezaten osasun-sistemeekin egiten dituzten kudeaketetan, ahalik eta segurtasun eta konfidentziasun handiena bermatuz.

Halaber, prestazio berriak ezartzen jarraituko dugu eta osasun-karpetaren sarbide pertsonalizatua indartuz.

Osasunaren prebentzioa eta sustapena.-

9. Osasuna sustatzea erkidego-inguruan.

Elikadura osasuntsua, ohiko ariketa fisikoa eta bizitza-estilo osasuntsuak sustatzeko programak indartuko dira.

Zentzu horretan, Obesitatea Prebenitzeko Plana sustatuko dugu, informazioan, osasun-hezkuntzan, ariketa fisikoan eta elikadura osasuntsuan oinarritutako neurriekin.

Era berean, gazteen aho-hortzetako osasuna sustatzeko, Haurrentzako Hartz-

arreta Programaren zerbitzuen irisgarritasuna eta erabilera hobetuko dira.

10. Arreta berezia mendekotasun-arazoak dituzten pertsoneri.

Halaber, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko Lege berria garatuko da. Esparru horretan, Euskal Autonomi Erkidegoko mendekotasunen VII. Plana egingo da; horrek mendekotasunak prebenitzeko programak eta ekintzak aurreikusiko ditu, bereziki familia, hezkuntza, erkidego eta laneko eremuetara bideratutakoak.

11. Koordinazioa bultzatzea osasuna hobetzeko.

Konpromiso horri erantzuteko, 2013-2020 Osasun-planetik eratorritako ekintzak ezarriko dira eta tokiko osasun-sareak abiaraziko dira.

Gainera, gobernuaren arloetan egindako sektore-plan eta politika guztiek osasunarengan duten eragina ebaluatuko da eta sareko lana garatuko da osasun-sistemako eta osasun publikoko profesionalen artean.

Arreta integratua.-

12. Arreta integratua indartzea osasunaren eremuan.

Diziplina anitzeko profesionalen taldeak sortuko dira, pazienteei arreta integrala emateko; Informazio Klinikoko Sistema hedatzeko Osakidetza baliabide guztietan eta itundutako egoitza-baliabide guztietan, bai gizarte-sektorekoak, bai osasun-sektorekoak.

Halaber, gizarte-osasun koordinazioa bultzatuko da, gizarte-osasuneko lehen mailako arretako taldeak ezarriz eta hedatuz, non pertsonak modu integratuean ebaluatuko diren.

Ebaluazioaren kultura sustatuko da, Osasun-erakunde Integratu berriak kudeaketaren eta arreta-emaitzen etengabeko hobekuntzara bideratuz.

Profesionalak.-

13. Osasunaren arloko profesionalen inplikazioa.

Buruzagitza partekatua bultzatzea eta osasunaren arloko profesionalak zentro eta zerbitzuen kudeaketan parte-hartzeko bide eraginkorrak ezartzea, horiek erabakiak hartzeko eta sistema eraldatzeko prozesuetan gehiago inplikatzen.

Ilido horretatik, osasunaren arloko langileen etengabeko prestakuntza eta gaikuntza erraztuko da, osasun-profesionalentzako prestakuntza-ibilbideak ezarriz.

Lege-esparru egokia sustatuko da, zentro publiko eta pribatuetako erizainek osasun-produktuak eta medikamentuak agindu eta erabili ahal izateko. Era berean, erizain erreferentearen irudia hedatuko da patologia anitz dituzten pazienteentzat.

Azkenik, lana eta familia bateratzeko neurriak garatuko dira euskal osasun-sistema publikoan.

Ikerkuntza-Berrikuntza.-

14. Osasun-berrikuntza eta ikerkuntzako inbertsioaren handitze mailakatuak.

Horretarako, “Osasun-berrikuntza eta Ikerkuntzako Euskadi 2020 Estrategian” jasotako ekintza guztiak abiaraziko dira. Beste neurri batzuen artean, ikerkuntza-erakunde eta zentro sarearen jarduera indartuko da, bereziki biozientzien eta osasunaren arloan.

Era berean, osasun-ikerkuntzaren emaitzak osasun-sisteman eta jardunbide klinikoan aplikatzea sustatuko da.

Gure profesionalen eta bikaintasun-zentroen arteko harremanak bultzatuko dira eta diziplina eta erdigune anitzeko ikerkuntza sareetan parte hartzea sustatuko da.

15. Pazienteen beharretara egokitutako osasun-azpiegiturak bermatzea.

Horri dagokionez, Eibarreko ospitalea eraikitzen amaituko da eta irekiko da; Urdulizeko ospitale berriko zerbitzu eta ekipamendu mediko guztiak garatuko dira; Bio-Cruces eraikin berria bukatuko da; Txagorritxuko ospitalea handituko da eta Basurtoko zainketa intentsiboaren unitate berria ere bai.

16. Osasun-sistemari eustea, metodoak eta baliabideak optimizatuz.

Sistemaren iraunkortasuna bermatuko da, ospitalizazio tradizionala ordeztuko aukerak indartuz; telemedikuntza sustatuz, bereziki paziente kronikoentzat, eta teknologia berrien ebaluazio sistemikoa eginez, etengabe eguneratuta egon dadin Osakidetzaaren ekipamendu teknologikoa.

2.2. GIZARTE OREKA BERMATZEKO BIKAINASUNEZKO HEZKUNTZA

PRINTZIOPIO INSPIRATZAILEAK

1. Hezkuntza gizarte oso baten eta herritarren banakako aurrerapenaren faktore nagusia da. Funtsezko elementu bat da aukera-berdintasuna sustatzeko eta bizikidetzaren demokratikoa, solidarioa eta erantzulea eraikitzeko.
2. Ondo prestatutako giza-kapitala pilatzea estrategikoa da Euskadiren etorkizunerako. Hortaz, guretzat hezkuntza funtsezko faktore bat da aurrerapen ekonomikoa eta ongizatea sortzeko; gure hazkunde ekonomikoko eredu indartzeko eta gure produkzio-sektorearen lehiakortasuna handitzeko. Euskadik gizarte lehiakorra izan nahi badu, bikaintasunerantz osorik bideratutako hezkuntza-sistema bat izan behar du.
3. Hezkuntzaren ikuspuntu integral batetik, euskal hezkuntza-sistemaren kalitatean aurre egin behar dela ados gaude, zuzentasuna, gizarte-kohesioa, balioen hezkuntza, aniztasunarekiko errespetua eta pentsamendu eta sinesmen askatasuna sustatuz, baita giza-eskubideak eta aniztasunaren defentsa ere. Gure helburua da Euskadiko eskola-porroteko tasak %8aren azpitik egotea.
4. Eskola euskararen ezagutza hedatzeko faktore nagusia izan da eta da, orain dela gutxi imajina ezinak ziren maila batzuetara arte. Zentzu horretan, uste dugu eskolan euskararen eta gaztelaniaren erabilera eta ezagutza finkatzen jarraitzea posiblea eta bateragarria dela, hezkuntza-sistema hirueleduneranzko bilakaera mailakatuarekin; sistema horretan euskara ardatz nagusia izango da eta hobekuntza eta aurrerapen nabarmenak egingo dira ingelesaren prestakuntzan, sare publikoaren eta itundutako sarearen arteko oreka bilatuz.
5. Helburu horrekin, XXI. Mendeko euskal herritarrei egokitutako hezkuntza-eredu integrala sustatu nahi dugu; eredu horretan, kultura zientifikoa eta humanitateak konbinatuko dira; bizitza osorako ikaskuntza aurreikusiko da eta ikasleei errealitatearen ikuspegi kritikoa eta eraldatzailea emango zaie. Eredu horri adostutako Hezkuntza Lege berri integratzaile batean oinarrituko da eta etengabe aldatzen ari den gizarte baten demanda eta behar berriei erantzungo die.

6. Gizarte- eta produkzio-bilakaera eta eraldaketa etengabe honetan, bikaintasunezko Lanbide Heziketan nagusitasuna mantentzea gure hezkuntza-sistemaren balio handienetariko bat izaten jarraituko du. Enplegugarritasunaren faktore eta garapen ekonomikoaren eragilea den lanbide heziketa bermatzea beharrezkoa da.
7. Era berean, unibertsitate-hezkuntzaren eta oinarrizko ikerkuntzaren aldeko estrategia indartu behar da. Bikaintasunaren, espezializazioaren eta nazioartekotzearen aldeko apustu irmoa egiten jarraituko dugu, unibertsitate-hezkuntza eta politika zientifikoko ereduaren arrakastaren gako gisa.
8. Horri dagokionez, adierazi behar dugu euskal politika zientifikoa garatzeko konpromisoa dugula, oinarrizko ikerkuntza finantzatuz unibertsitateen, ikerkuntza-taldeen eta bikaintasun-zentroen bidez. Politika horren oinarriak izango dira adimen ikertzailea hartzea, mantentzea eta prestatzea.

Oinarri horiek kontuan hartuta, bikaintasunezko hezkuntzaren aldeko apustua konpromiso hauetan gauzatzen da:

KONPROMISOAK

1. Hezkuntza-ituna Hezkuntzaren Euskal Lege berri bat sortzeko.

Lortutako esperientzian oinarrituz, hezkuntza-itun bat adosteko konpromisoa hartzen dugu; azkenean, horrekin Euskal Lege berri bat eratuko da, euskal hezkuntzaren egonkortasuna eta kalitatea egituratu eta indartzeko, hurrengo hamarkadetan bikaintasunerantz aurrera eginez. Itun horrek Eskola Publikoaren funtsezko papera eta horren izaera laikoa aitortuko ditu; hezkuntza-sistema osoa finantzatzeko oinarri arautzaileak ezarriko ditu eta horren berrikuntza teknologikoa garatzeko aldaketa materialak eta metodologikoak prestatuko ditu.

2. Eleaniztasuna.

Hizkuntza-proiektu eleaniztunak Euskal Autonomi Erkidegoko zentro guztietara hedatzea, gune bakoitzeko gizarte-hizkuntza errealitatea kontuan hartuz. Ikuspuntu horretatik, irakasleen hizkuntza-eguneraketa eta hizkuntzen didaktikaren prestakuntza sustatzeko konpromisoa hartzen dugu, funtsean hizkuntzen tratamendu integratu eta integralari dagokienez.

Helburua da 2020rako 500 zentro publiko eta itundutako zentrok baino gehiagok irakaskuntza eleaniztuna eskaintzea. Horretarako, irakasleei atzerriko hizkuntzen hizkuntza-prestakuntza eta prestakuntza metodologikoa emateko plan bat eratu behar da.

Ingelesaren prestakuntzaren hedadurak garrantzi berezia izango du. Hortaz, zenbait euskal hezkuntza-zentrotan Lehen Hezkuntzako 4. Mailatik aurrera ikasgai bat, gutxienez, ingelesez irakasten hasteko konpromisoa hartzen dugu, zentroaren proiektu eleaniztunak hori ahalbidetzen badu. Hala, prestakuntza hori maila batean aurreratuko da urtero. Neurri espezifikoak sustatuko dira zentro publikoen eta itundutako zentroyen artean ingelesaren prestakuntzan dagoen aldea zuzentzeko. Era berean, derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehenengo zikloan atzerriko bigarren hizkuntzaren ikaskuntza sustatzeko konpromisoa hartzen dugu.

3. Berdintasuna bermatzea hezkuntzarako sarbidean.

Konpromisoa hartzen dugu urtero 55 milioi euro bideratzeko beken programaehuneko-puntutanuntza, leku-aldaketak, egoitza, jantokia eta eskola-materiala); urtero unibertsitateko ikasleak ez diren 130.000 ikaslek horren onuradunak izango dira. Familia eta lana bateratzen laguntzen duten neurriak indartuko ditugu, ezarritako sistemaren bidez eta Haur Eskolen matrikulentzako hobariak emanez, familien errenten arabera modulaturatutakoa.

4. Hezkuntza-kalitatea: Zuzentasuna + bikaintasuna.

Gizarte-koheiorik gabe, bikaintasunak ez dauka zentzurik. Hezkuntza-kalitatea eta gizarte-berdintasuna integratzen dituzten politikak bultzatu behar ditugu. Horretarako, 2 urteko haur guztien eskolatze-demanda asetzeko proposatzen dugu. Horrez gain, abandonu goiztiarreko tasa murrizteko proposatzen dugu, 1,5 portzentaje-puntutan, %8koa izateko.

Eskola-emaitzak hobetzeko planak garatuko ditugu, euskal hezkuntza-sistema osoaren zuzentasunak eta kalitateak bikaintasunerantz aurre egiteko beharrezkoak diren neurri guztiak barne hartzen dituztenak, hezkuntza-eredu pedagogikoan ezarritako lerro estrategikoen arabera. Zentzu horretan, irakurmena eta gaitasun matematiko eta zientifikoa hobetzeko programak sustatuko ditugu, PISA errendimenduko maila baxuenetan dauden ikasleen kopurua murrizteko eta maila altuenetan daudenen ehunekoa handitzeko.

Tratamendu espezifikoak eskainiko diegu ikasteko zailtasun handiagoak dituzten ikasleei eta programa espezifikoak garatuko ditugu gaitasun altuak dituzten ikasleei behar bezalako arreta emateko.

5. Prestakuntza eta egonkortasuna irakasleentzat.

Irakasleei enpleguan egonkortasun eta kalitate handiagoa emateko konpromisoa, urtero enplegu-eskaintza publikoak deituz; hala, behar bereziak dituzten ikasleentzako baliabide eta langileen kopurua handituko da.

Irakasleen gaitasunen mapa definitzea, irakasleen jardunbidea hobetzeko ibilbide gisa.

Zuzendaritza taldeen buruzagitza, egonkortasuna eta jarraitutasuna sustatzea eta zentro publikoen autonomian irmoki aurrera egitea. Zentzu horretan, zuzendaritza taldeen egonkortasun maila handiagoa lortzeko konpromisoa hartzen dugu, baita irakasleek zentro bakoitzean jarraitzeko tasa hobetzeko ere.

Parekoen arteko ikaskuntza sustatzea, Partekatuz Ikasi; arrakasta-esperientziak erreplikatzeko eta lankidetzeta eta eskolen artean esperientziak partekatzeko sareetan lana biziagotuz.

Irakasleak prestatzeko eredu berri bat ezartzea, testuinguru europar baten barruan, Europako Erasmus+ proiektutik abiatuz: “A new way for new talents in teaching”.

6. Irakasle-lanbidearen gizarte-ospea sustatzea.

Irakasleen papera indartzeko konpromisoa hartzen dugu, hezkuntzaren hobekuntzaren eta aldaketaren eragile nagusi gisa. Horretarako, irakasleen egonkortasunaren eta prestakuntzaren aldeko jarduketaz gain, gizarte-sentsibilizazioko kanpainak garatzeko proposatzen dugu, irakasleen lanbidearen gizarte-ospea hobetzeko, hezkuntza-erkidegoaren sektore desberdinen lankidetzarekin.

7. Oreka, gizarte-kohesio, kulturartekotasun eta bizikidetzeta handiagoa lortzea gure hezkuntza-zentroetan.

Bizikidetzeta eta gizarte-kohesioa sustatzen dituzten eskolatze-irizpide bateratu berriak aplikatzea, ikasleen aniztasuna kontuan hartzen duen eskolatze inklusiboaren bidez (jatorria, etnia, hezkuntza-behar bereziak,...).

Ikasle immigranteak sare publiko eta pribatuan modu orekatuan integratzeko aurrera egitea.

Balioen hezkuntza indartzea, pertsonen garapen integrala bultzatzeko.

8. Lehen eta bigarren hezkuntzako azpiegiturak handitzea.

Hezkuntza-zentro berriak Bizkaian: Bizkotxalde HLHI (Basauri), Ugao BHI, Güeñes BHI, Pagasarribide BHI (Bilbao) eta Muskiz BHI.

Hezkuntza-zentro berriak Araban: Zabalzana BHI (Gasteiz) eta Errekabarri HLHI (Gasteiz).

Hezkuntza-zentro berriak Gipuzkoan: Miguel Altuna LH(Bergara), Hernani BHI, Arroa Behera HLHI (Zestoa) eta Oikia HLHI (Zumaia).

9. Irakaskuntzaren modernizazio teknologikoa bultzatzea.

Modernizazio teknologikoa material didaktiko eta hezkuntza-eduki inprimatu eta digital irekien sorkuntza eta hedapena babestean oinarrituko da, batez ere, euskarazko materialena, Heziberri 2020 Planaren plangintza didaktiko eta metodologikoarekin bat datozenak.

Helburua da zentroen eraldaketa teknologiko pedagogikoarekin jarraitzea, horien hezkuntza-proiektuak hobetzeko eta sare-ikaskuntzaren erkidego birtuala eraikitzeke.

10. Euskal Lanbide Heziketaren Legea.

Euskadiko lanbide heziketa arautzen duen lege berri bat onesteko proposatuko da, euskal gizarteak eta enpresek eskatutako beharretara egokitzeke; hala, abiapuntu gisa hartuko da aurreko legegintzaldian legebiltzarrari bidalitako Lege-proiektua eta gizarte-eragileekin (sindikatuak eta enpresaburuak) hartutako erabakiak Gizarte-elkarrizketako Mahaiaren esparruan.

Eremu horretan, Lanbide Heziketako V Euskal Plana egingo da; horrek, Lanbide Heziketako zentro integratuen sustapena aurreikusiko du; enpresa eta prestakuntza dualarekiko harremanak sakontzea; berrikuntza teknologiko aplikatua babestea eta lanbide heziketako zentroetan ekintzailatza bultzatzea.

Ikaskuntza-metodologia berriak ezartzea bultzatuko dugu, ikasleen gaitasunak hedatu eta hobetzen dituzten prestakuntza-zikloetan. Era berean, prestakuntza-eskaintza malguago bat ezarriko dugu eta ikaskuntza erdipresentziala eta urrutiko ikaskuntza indartuko ditugu online prestakuntzaren bidez.

Atzerriko lehen hezkuntza bat sartuko dugu pixkanaka (ingelesak lehentasuna dauka) lanbide-irakaskuntza guztietan, ikasleen aukera profesionalak eta lan-aukerak hobetu eta hedatzeko eta gure enpresak nazioartekotzeko prozesuetan laguntzeko.

Halaber, uste dugu beharrezkoa dela bizitza osoan zehar ikasteko Legea garatzea, helduen hezkuntza iraunkorra indartzeko, horien enplegugarritasuna hobetze aldera.

11. Prestakuntzen eta espezializazio profesionalen euskal esparrua garatzea lanbide heziketaren eremuan.

Esparru horretan, espezializazio-programa berriak diseinatuko ditugu, garatzeko bidean dauden enpresa eta jardueren behar berrien arabera.

Prestakuntza-ibilbide integratu gehiago ezartzea, hutsik dauden lanpostu zehatzak edo etorkizunean sortuko diren lanpostuak betetzera bideratutakoak, bereziki nabarmenduz Espezializazio Adimentsuaren Estrategian (RIS 3 Euskadi) definitutako aukera-eremuak. Horrez gain, beste helburu bat ingelesa lanbide-irakaskuntza guztietan pixkanaka sartzea da.

12. Unibertsitatea.

Euskal unibertsitate-sistemaren garapenaren aldeko apustu argia egiten jarraituko dugu, batez ere UPV/EHUren garapenaren aldekoa; hala, prestakuntza, ikerkuntza eta ezagutzen transferentziarako baliabideak hobetuko ditugu. Konpromisoa hartzen dugu aurrera egiten jarraitzeko, Goi-mailako irakaskuntzako gastuko BPGren %1,5 lortzeko, iturri publiko eta pribatuetako finantzazioarekin. Hori guztia, bikaintasun, espezializazio eta nazioartekotzearen aldeko apustu irmoa egiteko, gure unibertsitate-hezkuntza eta politika zientifikoaren ereduaren arrakastaren gako gisa.

Gure konpromisoa da euskal unibertsitate-sistema baten garapenean aurrera egiten jarraitzea, emaitzetara bideratutako kudeaketa batekin eta inguru global berrira egokitzeko gaitasunarekin, euskal gizartearen etorkizuneko erronkei erantzuteko.

13. Politika zientifikoa eta unibertsitate-politika ikertzailea garatzea eta adimena sustatzea.

Urtero politika zientifikora eta oinarrizko unibertsitate-ikerkuntzara bideratutako baliabideen %5 handitzeko konpromisoa hartzen dugu.

Ikerbasquen lana sustatzea, Euskadin bikaintasunezko adimen ikertzailea hartzeko, prestatzeko eta mantentzeko erakunde sustatzaile gisa.

Beharrezko baliabideen hornikuntza karrera profesional ikertzailearen euskal eredia garatzeko eta beharrezko araudia garatzeko ikertzaileak unibertsitate-sisteman eta euskal bikaintasun-zentroetan integratzea babesteko. Hori guztia, adimen ikertzailea sortzeko, mantentzeko eta erakartzeko politika indartzeko.

14. Euskal unibertsitate-sistemaren nazioartekotzearen aldeko apustua.

Euskal unibertsitate-sistemarekin elkartutako Nazioarteko Bikaintasun Campusak sustatzea. Euskal unibertsitateak nazioarteko erreferentziatzeko postuetan kokatzeko prozesuan aurrera egiten jarraitu behar dugu.

Euskal unibertsitateetan eta bikaintasunezko ikerkuntza zentroetan zerbitzuak ematen dituzten langileen eta ikasleen nazioarteko mugikortasuna erraztea.

Prestakuntzaren eta ikerkuntzaren kalitatea ziurtatzeko eta ebaluatzeko irakaskuntza-ereduak sustatzea, euskal unibertsitate-sistemaren eta nazioarteko beste unibertsitate eta eragile batzuen arteko lankidetzari handiagoa izateko.

Euskal unibertsitate sistemako unibertsitateen arteko nazioarteko lankidetzari babestea, horien eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Euskal Sareko gainerako eragileen artean.

15. Beken politika indartzea karrera ikertzailean.

Beken eta laguntzen berezko eredu bat garatzea, euskal ikasleak unibertsitate-prestakuntzan eta karrera ikertzailean integratu ahal izateko.

16. Unibertsitate-enpresa programak sustatzea.

Oinarrizko ikerkuntzaren emaitzak enpresei, zentro teknologikoei eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko beste eragile batzuei helaraztea sustatu eta babestea. Horretarako, trebakuntza handiko ikertzaileak euskal zentro teknologikoetan eta enpresetan integratzeko programa espezifikoak indartuko dira.

2.3. GAZTERIARENTZARAKO GIZA ETA KULTURA GARAPENA

PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK

Kultura integratzailea eta irekia.-

1. Ados gaude kultura sustatzeko helburuarekin, bizikidetza, adimena eta aberastasuna sortzeko eta pentsamendu kritikoa sustatzeko palanka gisa. Eremu horretan, politika kulturalak Industria Kultural eta Sortzaileen garapena ere sustatu behar du, espezializazio adimenduko estrategia gisa, horien dimentsio ekonomikoa, teknologikoa, kulturala eta soziala barne hartzen dituen ikuspegi batetik.

Euskara eta hizkuntza-bizikidetza.-

2. Euskara Euskadiko berezko hizkuntza da, ez da bakarra, baina guk bakarrik ezagutzen dugu. Euskara Euskadikoa den beste hizkuntzarekin bizi da: Gaztelania. Hizkuntzak ez dira baztertzailerak, baizik eta dibertsitate, aniztasun eta integrazioaren froga. Bizikidetza hori hobetzeko behararekin ados gaude, hori bidezkoagoa izan dadin, integratzaileagoa eta orekatuagoa gizarte-kohesio handiagoko horizontean.

EITB. Eredua anitz, objektibo eta iraunkorra.-

3. Hedabide publikoak euskal autogobernuaren funtsezko oinarri bat dira. Funtsezko motorra dira komunikaziorako eta informazio erreala eta anitza emateko berezko espazio bat sortzeko, unibertso kulturala sortzeko eta gure gizartearekin lotutako entretenimenduko edukiak eskaintzeko. Gainera, EITB euskara normalizatzeko tresna da eta euskal ikus-entzunezko sektorearen traktorea.

Aukeraz betetako etorkizuna gazteentzat.-

4. Gazteen emantzipazioa bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu, prestakuntzarako, enplegua eta etxebizitza bat lortzeko aukerak sustatuz. Gazteak entzun eta errespetatzeko jarrera batetik, esfortzuak bilduko ditugu gazteek bizitza-proiektu independente bat garatu ahal izateko, lehenengo lan aukera eta etxebizitza bat izan ditzaten erraztuz.

Kirola osasun eta integrazioaren sustatzaile.-

5. Kirola gizarte aurreratu baten adierazpenetako bat da. Gure helburua kirola osasuna, integrazioa eta berdintasuna sustatzeko tresna gisa nabarmentzea da. Euskal kirolariak babesteak gainditze, borondate eta ilusio balioak sustatzea dakar. Euskal kirolak nazioartean Euskadiren eta bertako kulturaren irudi positiboa proiektatzen laguntzen du.

Oinarri horiek kontuan hartuta, kulturaren garapenaren eta gaztediaren aldeko apustua honako konpromiso hauetan gauzatzen da:

KONPROMISOAK

1. **Kultura dinamizatzeko eta sustatzeko estrategia bat sustatzea 2020 urtera begira.**

Erakundeen arteko euskal plan bat onestea, estrategia bakar batean sustapen, kontserbazio, ikerkuntza, sorkuntza, produkzio, merkaturatze eta hedapen kulturalako politika publiko guztiak batzen dituen. Gainera, mezenasgo eta mikromezenasgo kulturalako esparru berri bat sustatzeko konpromiso espezifiko hartzen dugu.

Kultura Bona sustatuko dugu, produktu kulturalen kontsuma bultzatzeko, aldundiekin eta udalekin koordinatuz eta “Kultura Auzolanean” programaren esparruan.

Foru Aldundiekin batera, finantza-itzulerako mekanismoak aztertuko ditugu, industria kulturalak Espainiako Gobernuak onetsitako BEZaren igoera bideratu ahal izateko.

2. **Gazte sortzaileak, industria kulturalak eta kultura digitala babestea eta sustatzea.**

“Euskadi Sortzailea” Programa garatzea, industria kultural eta sortzaileen multzoa bultzatzeko. Programa hau sektore kultural eta sortzailearen finantzazioa eta profesionalizazioa sustatzera bideratuta egongo da; kultura digitala sustatzera; euskal sortzaileen nazioartekotzea babestera eta atzerrian Euskadiren irudia lurralde sortzaile gisa proiektatzea.

3. Erreferentziazko ekitaldi eta azpiegituren nazioarteko izaera finkatzea.

Nazioarteko irismena duten azpiegitura kulturalen babesa indartzea, bisitariak erakartzea eta turismo kulturala bultzatuz. Horretarako, kultura eta lurraldea bateratzen dituzten ekimenak garatuko dira, ondarearen babesa, aktibazioa eta sozializazioa bultzatuz.

4. Euskadiko ondare kulturala babestea eta nabarmentzea sustatzea.

Ondare Kulturalaren Euskal Legea onestea.

Era berean, “jauzi digitala” deritzona finkatzeko beharrezkoak diren bitartekoak bermatzen dituen plan espezifiko bat garatzeko konpromisoa hartzen dugu. Zentzu berean, Euskadiko irakurketa publikoko liburutegi digitala handitzeko konpromisoa hartzen dugu.

5. Euskararen gizarte-hazkundera finkatzea, euskal hiztunen kopurua handituz eta hizkuntza-gaitasuna hobetuz.

Helduek B2 mailara arte euskara doan ikasi ahal izateko prozesua amaitzea. Doakoa izango da, betiere ezarritako maila akademikoak gainditzen badira.

Euskararen Ezagutzaren ziurtagiriak Baliozkotzeko Batzordearen gomendioen arabera, tituluak eskuratzeko sistema hobetuko da, euskal hiztunen kopurua handitzeko eta indartzeko.

Illo horretan aurre egiteko, kudeaketa-sistema bakar bat ere sustatuko da, euskararen ikaskuntza sustatzearekin lotutako alderdi guztiak barne hartzen dituen; HABEk koordinatuko du sistema hori.

6. Euskararen erabilera hedatzea aisialdian eta formalak ez diren eremu funtzionaletan.

Euskarazko edukiak areagotzea Interneten eta tresna digitaletan. Konpromiso hori lankidetzeta eta integrazio printzipioetan oinarrituz garatuko da, hezkuntza-edukiak, kulturalak eta aisialdiko edukiak sortzen dituzten unibertsitate, erakunde eta pertsonen parte-hartzea sustatuz.

7. Irudi positiboa hedatzea eta euskara kanpoan proiektatzea.

Nafarroako Gobernuaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren (EEP) arteko lankidetzeta indartzea. Gainera, lankidetzeta-akordio bat garatuko da aitortutako berezko hizkuntza bat duten autonomi erkidegoekin, “Espainia eleaniztuna” adierazpenaren proposamenekin bat etorriz, hizkuntza-bizikidetzaren inguruan ahalik eta adostasunik handiena lortzeko.

8. EITBren zerbitzu publikoko izaera bermatzea eta bikaintasunezko kudeaketa sustatzea.

EITBren modernizazio eta arrazionalizazio prozesuarekin jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu, hori herritarren demanda berrietara egokituz. Zerbitzu publikoaren izaera indartzea ere bada konpromiso bat, objektibitatea eta aniztasunaren errespetua bermatuz. Era berean, EITBren trakzio-izaeran sakonduko dugu euskal ikus-entzunezko sektorearekin, kulturarekin eta kirolarekin duen harremanean.

Kontratu-programa bat egingo da eta Legebiltzarrak horren inguruko txosten bat egingo du; kontratu-programa horren bidez, finantzazio-sistema garden, iraunkor eta eraginkor bat bermatuko da, hori betetzeko aldizkako ebaluazio-sistemak eta konpromisoak ezartzen dituen.

Era berean, 2016ko ekainaren 6an Eusko Legebiltzarrean erabaki zen bezala, errepikatu nahi dugu beharrezkoa dela eztabaida bat sortzea, EITBren erreforma integrala jorratzeko, Euskal Irrati–Telebista Publikoaren zerbitzu publikoa modu eraginkorragoan emateko.

Besteak beste, erreforma honetan erakundearen iraunkortasuna eta eraginkortasuna aztertuko dira; zuzendaritza organoen kontrol- eta gardentasun-tresnak; eskaintza gizarte-hizkuntza errealitate berrira eta erabilera teknologiko berrietara egokitzea, baita enpresa eredu antolatzailean emandako aldaketak eta euskal ikus-entzunezko industria sustatu eta babesteko berariazko konpromisoa ere.

9. Gazteen laneratzea sustatzea.

Gazteentzako Enplegu Plan bat sustatzea, lan-aukerak eta prestakuntza errazten dituen, gazte-bermea aplikatuz. Plan horrek prestakuntza dualeko programak abiaraztea aurreikusiko du, kontratatze konpromisoarekin; hezkuntzaren arlotik lanera igarotzeko bekak; gazte-itzulerako programak eta kultura ekintzailearen sustapena. Legegintzaldi honetan, gure helburua da 20.000 gaztek lehen lan-aukera eta esperientzia bat lortzea.

10. Gazteek etxebizitza bat eskuratu ahal izatea erraztea.

Gazteentzako informazio, orientazioa eta laguntza sistema bat abiaraztea, etxebizitza bat eskuratzeko dauden neurri publikoen eskaintzaren inguruan. Alokairuan dauden etxebizitzak bilatu eta eskuratzeko sistema hobetuko da; alokatzeko modalitate berriak sustatuko dira eta partekatutako pisuen programa indartuko da.

11. Euskal gazteen ohitura osasuntsuak, parte-hartzea eta eskuzabaltasuna sustatzea.

Jarduketa-programa integral bat abiaraztea gazteen osasunarentzat; kontsumo arduratsua sustatzeko; kirola; gazteen boluntario-programak eta belaunaldien eta lurraldeen arteko eskuzabaltasuna gehien behar duten pertsonekin.

12. Kalitatezko euskal sistema finkatzea.

Konpromisoa hartzen dugu kirola finantzatzeko, babesteko eta diruz laguntzeko esparru berri bat ezartzeko. Jarduketa hori Euskal Autonomi Erkidegoko Kirolaren Legea eguneratzeko prozesuan integratuko da eta eragile publiko eta pribatu desberdinen arteko koordinazioaren eta lankidetzaren bidez egingo da. Partekatutako helburua da bikoiztasunak saihestea eta kirol-plangintza hobetzea.

13. Kirola maila guztietan babestea eta kirola egitea sustatzea osasunaren, gizarte-integrazioaren eta berdintasunaren elementu gisa.

Emakumezkoen kirolaren eta egokitutako kirolaren sustapen espezifikoa. Horretarako, kirol-programen diseinuan, plangintzan eta garapenean esku hartzen duten begirale eta eragileen prestakuntza eta trebakuntza sustatuko dira.

Zentzu horretan, eta ukitutako taldeen laguntzarekin, Kirol-lanbideen Lege bat bultzatuko dugu, kirol-klubetan eta eskola-kiroleko programetan sortzen diren lanpostuak eta lan-profilak arautzeko.

Aldundiekin, klubekin eta federazioekin eztabaidatuko dugu, horiekin lan egiten duten kirolaren arloko langileen titulazioa eta trebakuntza ezartzeko.

14. Turismoaren eragile diren eta inguruan aberastasuna sortzen duten kirol-ekitaldien antolakuntza babestea.

Aldundiekin eta udalekin elkarlanean, nazioarteko kirol-ekitaldien antolakuntza sustatzea, kanpoan gure kultura proiektatzea ahalbidetzen dutenak eta inguruan turismoa bultzatu eta aberastasuna eragiten dutenak. Helburu horrekin, nazioarteko kirol-ekitaldietan parte hartzen duten taldeak eta kirolariak babesteko konpromisoa hartzen dugu, baita goi mailako kirolariaren estatutua onesteko ere.

2.4. INTEGRAZIORAKO ETA BERDINTASUNERAKO AGENDA SOZIALA

PRINTZIOPIO INSPIRATZAILEAK

1. Uste dugu gizarte-justizia eta kohesioa elkarrekin bizitzeko modu bat direla, baliabideak partekatzeko eta gizartean dauden desberdintasunak errespetatzeko. Ideia horrek eskatzen du arreta berezia jartzeko inklusioa sustatzen duten politika publikoen garapenean, baita kalitatezko gizarte-zerbitzu irisgarriak bermatzeko ere. Printzipio horien arabera, gure helburua da Euskadiko txirotasun-tasa %20 murriztea.
2. Euskadi, Europako gizartearen gehiengoak bezala, izaera sozial eta demografikoko politikak garatzeko erronka dauka, gizartearen zahartze mailakatuari eta jaiotza-tasa sustatzeko beharrari aurre egiten dietenak. Horri dagokionez, adineko pertsonen arreta ematea, bereziki mendekotasun-egoeran dauden pertsonen, eta familiak eta haurrak babesteko politikak, gizarte-politiken funtsezko bi oinarri dira.
3. Aitortzen dugu familiak oso garrantzitsuak direla gizarte-harremanen eta erkidego-hezkuntza sozial eta afektiboaren erdigune gisa. Hortaz, familia-erantzukizunak dituzten eta familia bat eratu nahi duten pertsonen bere bizitza-proiektua baldintza onenetan garatu ahal izatea sustatzen duten politiken alde egingo dugu, hori eragotzi dezaketen zailtasun ekonomikoak edo lan-zailtasunak gainditzeko lan eginez. Era berean, familia-erantzukizunak familiako kide guztien artean partekatu behar dira.
4. Ados gaude beharrezkoa dela etxebizitza bat eskuratu ezin duten pertsonen etxebizitza duin bat lortzea errazten duen etxebizitza-politika bat sustatzea, etxebizitzarako eskubide subjektiboari erantzunez eta lehentasunez alokairuko etxebizitzak eskuratzea erraztuz.
5. Berdintasunak emakumeek eta gizonek beren gaitasunak garatzea eta erabakiak genero-estereotipoek ezarritako mugarik gabe hartu ahal izatea ahalbidetzen du. Berdintasun-politika publikoak gizon eta emakumeen arteko berdintasun erreala bermatzera bideratuta egon behar dira; genero-indarkeria deuseztatzea; lan- eta soldata-berdintasuna bermatzera eta lan- eta familia-bizitza bateratzera eta horretan erantzunkidetasuna sustatzera.

6. Nazio Batuetako Batzar Nagusiak ezarritako Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendatik eratorritako konpromisoa onartzen dugu. Esparru horretan, garapen lankidetzarako euskal politika finkatzeko konpromisoa hartzen dugu, euskal gizarteak munduan txirotasuna jasaten duten eta aukerarik ez duten pertsonekin duen konpromisoaren adierazle gisa. “Politiken koherentziaren” alde egiten dugu, lankidetzaren aldeko zeharkako konpromiso gisa.

Oinarri horiek kontuan hartuta, integrazio eta berdintasunerako gizarte-agenda baten aldeko apustua honako konpromiso hauetan gauzatzen da:

KONPROMISOAK

1. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta, gizarte-kohesioko tresna.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta finkatzea eta krisi ekonomikoak eragindako txirotasun-egoera berriei erantzutea, bizikidetz-unitatearen eta horren kideen izaera berrikusiz, horien babesa hobetzeko, gizarte-bazterketa egoerak kronifikatzea saihesteko.

Halaber, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzeko gehieneko banakako errentaren eta ondarearen kalkulu bereizia egitearen alde gaude, gizarte-behar berriei erantzuten diena.

Erakundeen arteko Batzorde Tekniko bat eratzea Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari atxikitako alderdi guztiak optimizatzeko eta hori gizarte-kohesioko tresna gisa finkatzeko.

Gizarte-laguntzen eraginkortasuna hobetzea, gizarteratzea erraztuz eta bazterketa kronifikatzea saihestuz. Horretarako, prestakuntza-programak eta lan-eskaintzak sustatuko ditugu aktiboak izan daitezkeen pertsonentzat, arreta berezia jarritz 3 urtez baino gehiagoz baztertuta egon diren eta aktiboak izan daitezkeen pertsonengan, horiek lehentasunez lan-merkatura sartzea bultzatzeko asmoarekin.

Gizarte-laguntzen erabilera egokia bermatzea gehien behar dituzten pertsonengana heltzeko, laguntza-programak fiskalizatuz; erakundeen arteko lankidetzeta eta datuen arteko konexioa bultzatuz eta oraingo ikuskapen- eta kontrol-mekanismoak indartuz, horien erabilera desegokia eta abusuak saihesteko.

2. Gizarte-prestazioen eta politiken kudeaketa osoa aldarrikatzea.

Estatuak kudeatzen dituen kontribuziozkoak ez diren prestazio, subsidio eta pentsio guztien kudeaketa eta eskumena aldarrikatzea, diru-sarrerak bermatzeko politika integral eta eraginkor bakar bat diseinatzeko autonomi erkidegoan, laguntzak eta prestazioak sinplifikatzen dituena.

3. Gizarte-zerbitzuen Sistema finkatzea eta indartzea.

Adostasun handiko gizarte-ituna bultzatzea, finantzazioa finkatzeko eta Gizarte-zerbitzuen Euskal Sistemaren iraunkortasuna bermatzeko. Gizarte-zerbitzuen Erakundearen arteko Organoa garatzea; horren bidez, Eusko Jaurlaritzak koordinazio eskumenak gauzatuko ditu gainerako euskal administrazio publikoekin.

4. Gizarte-larrialdiko Laguntzak bermatzea.

Gizarte-larrialdiko Laguntzen aurrekontu-zuzkidura handitzea; horrela, gobernuak eta inplikaturako gainerako erakundeek erantzun egoki bat eman ahalko diete premia handieneko gizarte-larrialdiko egoera pertsonal eta familia-egoerei.

5. Txirotasuna energetikoa.

Botere publikoek arreta berezia jarri behar dute herritar ahulenei eragiten dien txirotasun energetikoarengan, egoera hori leheneratzen edota larriagotzea ekiditen saiatzeko; izan ere, bizitza-kalitatea eta pertsonen duintasuna eta osasuna ukitzen dituzte. Zentzu horretan, txirotasun energetikoari aurre egiten dion araudi bat sustatuko dugu.

6. Koordinazioa bultzatzea gizarte-zerbitzuen eta enplegu-zerbitzuen artean.

Koordinazioa eta lankidetzaren sustatzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Gizarte-zerbitzuen Euskal Sistemaren artean; enplegu-garritasun zaila duten pertsonen arreta emateko jarduketaren protokoloak eratuz. Era berean, laneratzeko hitzarmenak indartuko dira.

7. Etxebizitzaren Legean aitortutako etxebizitza bat izateko eskubide subjektiboa garatzea.

Etxebizitzaren Legearen konstituzionaltasuna defendatzen dugu, etxebizitza bat izateko eskubide subjektiboa aurreikusten duena; bizitza duin eta egoki baterako sarbide egonkorra bermatzen du baliabide ekonomikorik ez duten pertsonentzat, edo, hala badagokio, etxebizitza hori eskuratzea bermatzen duen prestazio ekonomiko bat aitortzen du, Eusko Legebiltzarrak 2016ko apirilean onetsitako terminoetan.

Eremu horretan, pixkanaka erakunde publiko bakar batean pilatuko ditugu Eusko Jaurlaritzaren etxebizitzaren alorreko eskumenak.

8. Alokairu-erregimena lehenestea, baita gazteen emantzipazioa ere.

Gizarte-alokairuko etxebizitzaren parkea handitzea, formula desberdinen bidez, besteak beste, hutsik dauden etxebizitzak mugiaraziz. Alokairurako etxebizitzaren eraikuntza edota birgaikuntza finantzatzea ahalbidetzen duten sistema berriak bultzatzea, eragile pribatuei bermeak eskainiz, baita lankidetzaredu berriak ere lurzoruen lagapenaren bidez. Gazteek etxebizitza eskuratzea sustatzea, zuzkidura-ostatuaren bidez.

9. Gizarte-ituna immigrazioaren alde eta arrazakeria eta xenofobiaren aurka.

Neurriak sustatzea immigranteek zerbitzu publikoak baldintza berberetan baliatu ahal izateko. Osasun-, gizarte-, etxebizitza-, justizia- eta segurtasun-zerbitzuetarako sarbide normalizatua eta bidezkoa bermatzea eta kultura-aniztasunaren balio positiboaren inguruko sentsibilizazio programak bultzatzea.

10. Familien eta haurren aldeko ituna.

Erakundeen arteko estrategia bat sustatzea euskal gizartearen aldaketa demografikorako eta gaztetzerako, familiak eta haurtzarora babesteko politiken bidez. Diru-laguntzen, pizgarri fiskalen eta neurri eraginkorren sistema hobetzea erantzunkidetasunaren eta kontziliazioaren eremuan, bai lan-munduan, bai zainketen eta etxebizitzaren eremuan.

Erantzunkidetasunaren aldeko politika publiko eraginkorrak aplikatuko ditugu, sentsibilizazio eta prestakuntza neurrien bidez, etxeko lanak eta zaintzeko lanak gizonen eta emakumeen artean banatzea ahalbidetzen dutenak.

Lerro beretik, kontziliazioa lortzeko eta adingabeak zaintzeko beste laguntza-sistema batzuk aztertuko ditugu.

Haur Eskolen zerbitzuak handituko ditugu, aita eta amen lan-ordutegietara egokitzeko. Haur Hezkuntza 0-3 urtera hedatzea babestuko dugu. Horrez gain, eskolaz kanpoko laguntza eta erkidego-aisialdiko programen hedapena sustatuko dugu, hezkuntza-administrazioarekin lankidetzan.

Gizarte-elkarrizketa mahaiaren esparruan, negoziazio kolektiboan enpresetan lana eta familia bateratu ahal izateko neurriak jasotzea sustatuko dugu. Sariak emateko eta aitortpenak egiteko sistema bat aztertuko dugu lan-ordutegiak malgutzeko planak sustatu eta bere antolakuntza-ereduan telelana sartzen duten enpresentzat.

11. Zahartze aktiboa eta belaunaldien arteko elkartasuna.

Zahartzeari, gaixotasun kronikoei eta mendekotasunari arreta integrala emateko politika berritzaileak sustatzea.

Herritar aktiboak eta adin guztietako pertsonen arteko erantzunkidetasuna sustatzea; adineko pertsonen lankidetzat eta parte-hartze aktiboa sustatzen dutenak erkidego- edo auzo-izaerako jarduketetan. Horrez gain, adineko pertsonak herritar guztiei zuzendutako gizarte-zentro kulturaletan parte hartzea sustatuko da, batez ere landa-eremuetan.

12. Emakumeen aurkako Indarkeriaren Biktimen Legea sustatzea.

Neurri zehatzak ezartzea emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei aitortpen soziala egiteko eta ekonomikoki eta moralki ordaintzeko. Indarkeriaren biktimei ematen zaien arreta hobetzea, erakundeen arteko koordinazioaren bidez eta osasun-zentroekin koordinatzeko protokoloak ezarriz (lehen mailako arreta), Ertzaintza, Justizia-administrazioa, udalak eta Gizarte-zerbitzuak, koordinatzeko eta jarduteko bide iraunkorrak barne hartzen dituztenak. Jarduteko sistema koordinatu bat bermatuko dugu, biktimak babesteko eta horiei arreta emateko plan pertsonalatuak ezartzea errazten duena.

Antzemate goiztiarreko planak ezarriko ditugu, emakumeen aurkako indarkeriaren gizarte-gaitza aldeztu aurretik prebenitzeko. Gizarteratze-laneratze programa espezifikoak garatuko ditugu, biktimek indarkeriarik gabeko bizitza aske bat hastea ahalbidetzen dutenak.

Plan integral bat abiaraziko dugu genero-indarkeriaren biktima diren adingabeen mina prebenitzeko, konpontzeko eta horiek babesteko. Horrez gain, gizarte osoari zuzendutako sentsibilizazio-programak sustatuko ditugu, arreta berezia jarriz gazteengan.

13. Gizonen eta emakumeen arteko Lan-berdintasuneko Programa.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-planak sustatzen jarraitzea, Euskadi genero-berdintasuneko indizeen Europako lehenengo lau herrialdeen artean egotea lortu arte. Horri dagokionez, garatzen ari diren neurrien artean, berdintasun-programa indartuko da gizarte-eragile, enpresa eta erakundeetan, berdintasun-planen ezarpena indartuz. Era berean, neurri ekonomikoak eta sozialak sustatuko dira, ordainsari-berdintasunean aurrera egiteko, enpresetan soldata-gardentasuna sustatzeko eta soldata-diskriminazioari aurre egiteko.

14. Aniztasun afektibo eta sexualaren errespetua sustatzea.

Berdinu 2016-2020 lan-plana sustatzea, joera sexualeko eta genero-identitateko arrazoiengatik diskriminaziorik ez egoteko.

Era Berean-Tratu-berdintasuneko eta Diskriminaziorik gabeko Sarea programaren lan-plana diseinatu, ezarri eta ebaluatzea; beste jarduketa batzuen artean, lesbiana, gay, transexual eta bisexualei arreta eta aholkularitza emango die gorroto-delituekin edo diskriminazioarekin lotutako prozesuetan, baita sentsibilizazio-kanpainak eta hedatzeko materialen diseinua egitea ere.

15. Garapenaren lankidetzako euskal politika finkatzea.

Gobernuz Kanpoko Erakundeen lankidetzeta eta parte-hartzea areagotzea, Lankidetzako Euskal Kontseiluaren papera indartuz. Lankidetzeta-politikentzako aurrekontu-zuzkiduraren konpromisoa sustatzea, gainerako euskal erakunde publikoekin bat etorriz.

16. Lankidetzako politika publikoen koherentzia.

Gobernuaren barruan sailen artean lan egiteko espazio bat sustatzea eta garapenerako politika publikoen koherentzia-printzipioaren betetze-mailaren inguruko txosten bat egitea.

2.5. KALITATEZKO SEGURTASUN ETA JUSTIZIA ZERBITZU PUBLIKOAK

PRINTZIOPIO INSPIRATZAILEAK

1. Segurtasuna funtsezko zerbitzu publiko bat da eta kalitatezko, eraginkortasunezko, prebentziozko eta delitua jazartzeko printzipioetan oinarritu behar da. Horri dagokionez, Ertzaintzaren, udaltzaingoaren eta Estatuko eta Europako segurtasun kidego eta indarren arteko koordinazio eta lankidetzaren mekanismoak bultzatzen dituen segurtasun-ereduarekin ados gaude. Ertzaintzaren papera aldarrikatzen dugu Euskadiko polizia integral gisa, Europako segurtasun-estrategia baten barruan; estrategia horrek operazio- eta intelijentzia-mailan nazioarteko lankidetzaren handia eskatzen du.
2. Sistema judicial modernoa, azkarra eta eraginkorra defendatzen dugu, askatasun publikoak eta herritarren eskubideak bermatzen dituen, euskal administrazioak horren diseinuan nagusiki parte hartuz. Gure helburua justizia administrazioaren giza-baliabideen eta baliabide materialen kudeaketa hobetzea da, kalitatezko zerbitzu publiko berritzaile bat lortzeko, sistema demokratiko ororen funtsezko elementu gisa.
3. Etorkizuna eraiki nahi dugu justizia-administrazioa pertsonen zerbitzura jarritz; horrela, herritarren irisgarritasuna eragozten duten oztopo guztiak baztertzeko konpromisoa hartzen dugu, baita eskubideak gauzatzeko berdintasuna eragozten dutenak ere, benetako babes judiciala bermatzeko, bereziki talde ahulenei.

Oinarri horiek kontuan hartuta, Kalitatezko Segurtasun eta Justizia Zerbitzu Publikoen aldeko apustua honako konpromiso hauetan gauzatzen da:

KONPROMISOAK

1. Ertzaintza herritarrengana hurbiltzea.

Ertzaintza herritarrengana hurbiltzen saiatuko gara, Ertzaintzak ematen dituen laguntza-zerbitzuen garrantzia nabarmenduz eta Ertzaintxeak egokituz, euskal herritarren artean konfiantza eta segurtasuna handitzeko. Horretarako, izapideak arinduko ditugu eta arreta pertsonalizatua bultzatuko dugu, bai

zuzenekoa, bai telematikoa, delituen biktimetan arreta berezia jarriz.

2. Prestakuntza eta egokitzapen profesionala Ertzaintzan.

Prestakuntza iraunkorreko programak ezartzeko konpromisoa hartzen dugu, Ertzaintza osatzen duten pertsona guztien ezagutza tekniko eta juridikoak eguneratzeko, Erkidego Polizia segurtasunaren arloan dauden mehatxu berrietara egokitzeko, besteak beste, delitu informatikoak, terrorismo islamikoa, moneta-delituak edo antolatutako banden delituak. Era berean, iruzur delituak, ekonomikoak eta fiskalak ikertu eta jazartzen dituzten Ertzaintzaren unitateei baliabide gehiago hornituko dizkiegu eta horiek indartuko ditugu.

Euskal Poliziaren Legea onartu ostean, Ertzaintzan karrera profesionala garatuko dugu.

Era berean, gure autogobernuaren segurtasun-alderdia batera defendatzeko konpromisoa dugu, Ertzaintza izateko promozioen deialdiei jarritako oztopo eta errekurtsioen aurrean.

3. Koordinazioa eta lankidetzaren indartzea beste polizia kidego batzuekin.

Udaltzaingoan eta Ertzaintzaren arteko lankidetzaren hitzarmenak eta protokoloak egiteko proposatzen dugu, baita beste polizia batzuekin informazioa partekatze eta datuak finkatzeko ere. Bereziki, ERTZAINZA Terrorismoaren eta krimen antolatuaren aurkako Inteligentzia zentroan (CITCO) sartzea aldarrikatuko dugu, Estatuko Segurtasun-kidegoen baldintza berberetan. Era berean, tokiko Polizia-koordinazioko Batzordeak finkatzeko konpromisoa hartzen dugu.

4. Ertzaintza, polizia integrala eta eskusiboa Euskadin.

Indarreko esparru juridikoarekin bat etorritik, Ertzaintzaren presentzia aldarrikatzen dugu, euskal polizia integral gisa, Euskadi ukitzen duten segurtasunaren inguruko gaiak jorratzen diren Estatuko eta nazioarteko foro eta organoetan.

5. Segurtasuna eta mugikortasuna hobetzea gure errepideetan.

Bide segurtasunaren eremuan, 2020. Urterako, 2010. Urteko hildakoen kopuruarekin alderatuz, %50 murrizteko Europako konpromisoa gure egiten dugu. Horretarako, bide-segurtasunaren aldeko kontzientziazio-programak sustatuko ditugu eta trafikoaren kudeaketa hobetuko dugu bide nagusietan eta bigarren mailako errepideetan, informazio-sistema berriak erabiliz eta errepideen titularrak diren erakundeekin koordinatuz.

Bide-hezkuntza istripuak prebenitzeko tresna gisa sartuko dugu hezkuntza-

planetan.

6. Larrialdiak prebenitzeko eta ohartarazteko sistema indartzea eta herriaren autobabesa bultzatzea.

Herritarrentzako ohartarazpen-prozedura pertsonalizatua gaitzea “112” zenbakiaren eta teknologia berrien bidez. Gerta daitezkeen egoera arriskutsuei buruzko etengabeko informazio-sistema bat ezartzea, autobabesa bermatu ahal izateko informazio erreal, arin eta osoaren bidez. Larrialdiko kudeaketa koordinatua sustatuko dugu, ukitutako administrazioekin lankidetzeta eta koordinazio protokolo desberdinak ezarriz.

7. Sistema judizial modernoa, azkarra eta eraginkorra.

Epaitegientzako babes materiala eta ekonomikoa bermatuko dugu, bereziki epaitegi espezializatuentzat, atzerapenak saihesteko, judiziala ez den justizia administrazioko langileria finkatuz. Informazioaren eta telekomunikazioen teknologiak (IKT) ezartzeko prozesua osatzeko konpromisoa hartzen dugu. Horretarako, justizia administrazioaren eta herritarren interkonexio elektronikoaren gaikuntza sustatzen jarraituko dugu, espediente elektronikoa eta prozedura judizialaren informatizazio integrala. Era berean, egoitza judizialtako ekipamenduaren berrikuntza mailakatua egingo dugu.

8. Hurbiltasunezko Justiziaren eta koordinazio judizialaren eredia indartzea.

Bake-justizia babestea, arinago izapidetzen diren konplexutasun gutxiko gatazkak ebazteko. Euskal Autonomi Erkidegoko justizia sistemen eta Estatuan jarduten duten prozesu-kudeaketako gainerako sistemen arteko elkarreragingarritasuna ezartzea.

9. Genero-indarkeriako biktimen arreta judiziala hobetzea.

Helburu horrekin, Epaitegi, Auzitegi eta Fiskaltzaren eta Gizarte-politikako arloaren eta beste erakunde publiko batzuen arteko elkarrizketa bateratu zuzena eta arina ahalbidetuko da, gizarte-larrialdiko egoerei berehala eta modu eraginkorrean erantzuteko.

Abokatu-laguntza espezializatuko zerbitzuak indartzen jarraituko dugu, adierazpenetan atzerapenak eta berandutzeak saihesteko. Halaber, arrazoizko pribatutasun eta erosotasun bermatzen duten bulegoak hornituko ditugu.

10. Adingabeentzako arreta judiziala garatzea.

Behar adina plaza eskuragarri egotea Lege Penal urratu duten adingabeei judizialki ezarritako neurriei erantzuteko. Kanpoko adituek aldizka arau-hausle adingabeak hartzeko hezkuntza-zentroetako langile- eta funtzionamendu-

sistemak ikuskatzeko.

11. Gatazkak ebazteko aukerako sistemak sustatzea.

Gatazka judizialak ebazteko aukerako protokolo berri bat abiaraztea, Biktimaren Estatututik eratorritako errekerimenduetara egokitutakoa. Behin betiko sustatzea bitartekaritza gatazkak ebazteko modu gisa.

3. ELKARBIZITZA ETA GIZA ESKUBIDEAK

3.1. PREMISAK

- Akordio hau izenpetzen dugun alderdi politikook, bakea eta elkarbizitzaren normalizazioa gogor sendotzea eta, horretarako, ETaren behin betiko amaiera gauzatzen ere laguntzea helburu hartuta, lankidetzaren prozesu bati hasiera emateko hartu dugun erabakia agerrarazten dugu.
- Elkarrekin urrats erabakigarri bat emateko borondatea dugu biok, eta bat gatoz azken urteotan pluraltasunik handienaz lortu izan diren adostasunak abiapuntutzat hartzeko. Ikuspegi horretatik, Eusko Legebiltzarrean 2012ko uztailaren 12an onartu ziren akordioak geure egiten ditugu.
- Helburu politikoak lortzeko indarkeriaren zilegitasunik eza salatzen dugu, eta Giza Eskubideen errespetu oso-osoarekin dugun konpromisoa berresten dugu, ideologiaren edo kidetasun sentimenduen gaineratik herritarren duintasuna, ñabardurarik gabe, bera dela onartuaz, eta euskal gizartearen pluraltasuna aldeztuaz.
- Elkarbizitza egiaz, oroimenetik eta justiziatik eraikitzeko hitzemandako gaude, ETaren indarkeria, ez giza eskubideen beste edozein bortxaketa minimizatu, justifikatu edo legitimatzeko argudiorik –ez gatazka giro edo teoriarik, ez aurka jarritako bandoei buruzko tesirik, ez bestelako zeinuko urratzeen salaketarik, ez estatu arrazoirik, ez etorkizunaren prebalentziarik– ez dagoela argi adierazita utziko duen hausnarketa plurala bultzatuaz.
- Etorkizunera iragana ahantzita begiratzeagatik biktimen oroimena eta ohorea baztertuta ez geratzearen alde agertzen gara. Biktima guztiek, inor baztertu gabe eta beren biktimizazioaren kausen gainean paralelismorik ezarri gabe, merezi duten ezagutza eta ordaina jaso dezaten egingo dugu lan.
- Elkarbizitzaren normalizazioak, legezko posibilitate esperruaren barruan, presoaren gaia, espetxe politika eta gizarteratzea gizarte errealitate berriaren neurrian kontuan hartu behar dituela deritzogu.
- Terrorismoaren eta indarkeriaren amaiera, elkarrizketaren, giza eskubideetan heztearen eta kultura demokratikoaren balioekin konpromisoa hartuaz, elkarbizitzaren integrazio eta egituraketa soziala bilakatzeko erabakia hartu dugu.

3.2. OINARRIZKO DIAGNOSTIKOA

- 2011n ETAREN ekintza armatuaren amaiera iragarri ondoren, 2012-2016 aldian aurrerapen mamitsuak gertatu dira bizikidetzan, erailketa eta mehatxurik gabe. Hala ere, elkarbizitza normalizatzearen arloan lan egiten jarraitzea beharrezkoa da oraindik, eta eta zain dauden hiru gairi egin behar zaie: ETA armagabetu eta behin betiko desgiteari, espetze politikari, eta iraganariburuzko oroimen kritikoari.
- Paraleloki, elkarbizitzaren eta giza eskubideen errespetuaren esparruan, XXI. mendeko errealitateari egokitutako kezka agenda berri bat sortu da arian-arian. Goraka datozen eztabaidak dira, elkarbizitzako edo hezkuntzako aniztasuna eta elkartasuna bezalako balioen kudeaketarekin zerikusia dutenak, eta iheslariengan, migrazioetan, erlijio eta kultura pluraltasunean, bazterkeria eta injustizia era berrietan, edo nazioarteko terrorismoaren edo gerraren mehatxuari ematen zaizkion erantzunetan islatzen dira.
- Giro horretan, beharrezkotzat jotzen dugu, alde batetik, Eusko Jaurlaritzatik 2016-2020 Legealdirako Elkarbizitzaren eta Giza Eskubideen Plan Integral bat bultzatzea.
- Eta bestetik, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordearen barruan Euskadiko Oroimen eta Elkarbizitzari buruzko berriazko batzorde txostengile bat sortzea. Batzorde txostengile hori sortzeak elkarrekiko apustu bat dakar elkarbizitza adostu baten alde eta printzipio demokratikoei eta giza eskubideei lotutako konpromiso multzo baten alde.

3.3. KONPROMISOAK

- 1. Indarkeriaren amaiera ordenatua.** Indarkeriaren amaiera rdenatuarekiko konpromisoak hiru ardatz handitan islatu behar du:
 - Behin betiko armagabetzearen egutegi bat egiaztatzearen alde, aurretiaz ETAk atzeraezina eta baldintzagabea dela deklaraturata, desegiteko borondatearen adierazgarri.
 - ETA behin betiko desegin eta desagertzera iristea.
 - Giza eskubideen urraketan iraganean erantzukizun-sortzaile izan den edo bere biktimekiko sentiberatasunik eza ekarri duen guztiaz hausnarketa kritikoaren bidea jorratzea.
- 2. Biktimak.** Egia, justizia eta ordain politika publikoekiko konpromisoa, eta jasan zuten injustiziaren aurrean biktima guztiekiko elkartasun konpromisoa. Konpromiso honen zimentarriak, haien biktimizazioaren kausen berdinketarik egin gabe, sorrarazi zitzairen kalte eta sufrimenduaren aitortza eta berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioa dira.
- 3. Oroimena.** Iraganean gertatu zen edozein terrorismo edo indarkeria motaren legitimazio, konpentsazio edo minimizazioaren arbuioan eta orain edo etorkizunean berregitearen aurrez aurreko aurkakotzan konkretatzen den oroimen kritiko batekiko konpromisoa.
- 4. Espetxe politika.** Legez ezarrita dauden banan-banangotasun, gizatasun, egindako kaltearen aitortza eta gizarteratze printzipioen sustapen aktiboan oinarritutako espetxe politika batekiko konpromisoa, eta horren ondorioetako bat presoak familia girotik hurbil dauden espetxeetara aldatzearen alde agertzea da.
- 5. Goraka datozen erronkak.** Aniztasunaren kudeaketa positiboan eta desberdintasun eta bereizkeria era zahar eta berrien aurkako elkartasunean adierazpiderik gorena duten elkarbizitzaren eta giza eskubideen gorakako erronkei erantzuteko konpromisoa.
- 6. Elkarbizitza kultura.** Giza eskubideetan eta pluraltasunean oinarritutako bake eta elkarbizitza kultura batekiko konpromisoa; hezkuntza, zabalkunde, parte-hartze eta nazioarteko ekintza arloetako ekintza konkretu eta egonkorretan islatu beharrekoa.

7. **Elkarrizkea eta akordioa.** Funtsezko tresna demokratikoa den elkarrizketarekiko eta akordioarekiko konpromisoa, eta, ondorioz, erakunde, gobernu eta indar politiko eta legebiltzarrekoen arteko lankidetzeta eta elkarlan guneak sortzearekikoa.

3.4. AGENDA

1. konpromisoaren lan agenda: indarkeriaren amaiera ordenatua

- ETAREN behi betiko armagabetzeaz eta hura desegiteko proposamen bat bultzatu, 1. konpromisoan azaldutako moduan.
- Proposamen honi euskarria emateko legez besteko proposamen bat adostu.
- Iraganean giza eskubideen urraketan edo indarkeriaren legitimazioan erantzukizuna sorrarazi edo biktimekiko sentiberatasun falta ekarri duen guztiaz hausnarketa kritikoaren agiri bat aterarazi.

2. konpromisoaren lan agenda: biktimak

- Indarrean dagoen arau esparruaren arabera biktimen politika publikoak garatzen lagundu.
- Terrorismoaren biktimekiko oroimen, egia eta justizia politikak bultzatzen jarraitu.
- Biktimek eta gizarteak bat egitea eta haiek etorkizuna eta elkarbizitza eraikitzen parte hartzea bultzatuko duten ekintzak adostu.
- Eusko Legebiltzarrak 2016ko uztailaren 28an onartutako Biktimei Errekonozimendua eta Erreparazioa Emateko Legea garatzen lagundu.
- Legealdiaren amaieran horren emaitza eta biktimen aitortzaren arloan egiteke dauden zereginak ebaluatu.

3. konpromisoaren lan agenda: oroimena

- 1960-2010 aldian giza eskubideen urraketaren arloan iragana argitzeari buruzko lan plan bat zehaztu.
- Oroimen historikoaren egia argitzeko eta euskal erakundeek aitortzeko eta biktimei ordaina emateko prozesu baten edukia oroimen historikoaren arloan zehaztu.
- 'Gogora' Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren 2016-2020 Plan Estrategikoa adostu. Horren helburua, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean kontuak emateaz gain, Gogora institutuaren Zuzendaritza Kontseiluan parte hartzen duten eragile guztien lan eta

konpromiso adostuaren aitzindaritzak izan behar du.

4. konpromisoaren lan agenda: espetxe politika

- Helburu nagusia gizarteratzea izatea, eragin humanitario handieneko arazoei lehentasunezko arreta ematea, presoek hurbilketa bide egitea eta espetxe eskumena EAEari eskualdatzeko eskatzea, ordenamendu juridikoaren aurreikuspenen arabera, ardatz dituen proposamen bat adostu, espetxe-politika berrorientatzeko.
- Proposamen honi indarra emateko eta Espainiako Gobernu eta Euzko Jaurlaritza gai honetan ados jartzera hertsatzeko, Diputatuen Kongresuan eta Euzko Legebiltzarrean, legez besteko proposamen bana aurkeztea adostu.
- Europako justizia konpontzailearen ildotik, gizarteratzeko politika publikoak arautu eta sustatuko dituen dekretu bat onartzen lagundu.

5. konpromisoaren lan agenda: goraka datozen erronkak

- Elkarbizitzako aniztasuna positiboki kudeatzeko eta arrazismoa, xenofobia eta gorroto delituak prebenitzeko akordio agiri bat adostu.
- Giza eskubideen urraketen aurka elkartasunezko erantzun bideak adostu, iheslarien eta migratzaileen egoerari lehentasuna emanaz.
- Goraka datozen elkarbizitzaren eta giza eskubideen erronkei erantzuna ematen herritarrak eta elkarrekin inplikatzeko bultzatzeko ekinbideak adostu.

6. konpromisoaren lan agenda: elkarbizitza kultura

- Elkarbizitzan eta giza eskubideetan hezteko indartze programa bat garatzen lagundu.
- Gizartean giza eskubideen zabalkundea egiteko programa bat adostu eta garatu.
- Elkarbizitza arloan parte hartzea bultzatzeko gizarte erakundeekiko lankidetzak esparruak indartu.
- Elkarbizitzaren eta giza eskubideen aldeko nazioarteko ahaleginen sinergia butzatu.

7. konpromisoaren lan agenda: elkarrizketa eta akordioa

- Oroimenari eta elkarbizitzari buruzko berariazko batzorde txostengile bat sortzeko proposamena Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean aurkeztu eta arlo horiekin zerkusia duten gai guztiak eztabaidagune horretara eramateko konpromisoa hartu, erantzun adostuak bilatzen saiatzeko.
- Nazioarteko lan eta lankidetzaren eremuak sortzen lagundu.
- Bakearen, elkarbizitzaren eta giza eskubideen arloko ekintza ardatzei buruz Eusko Jaurlaritzaren eta legebiltzar taldeen artean aldizkako komunikazio eta koordinazio bide bat sortu.

4. AUTOGOBERNU GEHIAGO ETA HOBEA

4.1. ESTATUTUAREN ESPERIENTZIARI BURUZKO AITZIN HAUSNARKETA

1. Euskadin elkarbizitza demokratikoa hezurmamitzeko tresna gisa eta herritarren ongizate iturri gisa Gernikako Estatutua izan dena eta izaten jarraitzen duena positiboki balioesten dugu.

Haren arauak zehaztu duten erakunde eta autogobernu esparruan euskal gizarteak hasi duen ibilbidea, zalantzarik gabe, esperientzia arrakastatsua izan da.

Ondorioz, elkarbizitza demokratikoan sakontzeko eta kohesioan eta justizia sozialean aurrera egiteko asmoz, autogobernua eguneratzeko prozesu bati ekin nahi diogu XI. legealdi honetan, aldetaren doikuntza juridikoa eta legezkoa bermatuko duena eta indarrean dauden arauen eta legezko prozeduren arabera izapidetuko dena.

2. Espainian indarrean dagoen eredu autonomikoak euskal autogobernua eta bere berezitasun historiko, juridiko-instituzional eta kultural berekiak balioztatuko dituen birformulazio bat behar du. Konstituzioa ildo horretatik aldatuz gero, euskal gizarteak eskatzen duen autogobernua hobetu eta bermatzeko aukerak zabalduko lituzke.
3. Euskadin gizarte esparru bereki eta bereizi bat –garatuagoa arlo ekonomikoan eta aurrerakoiagoa arlo sozialean– osatzen haste aldera autogobernuaren muga zabaltzeko gogo komunaz gain, urgentea eta geroraezina iruditzen zaigu euskal autogobernuaren defentsarako baliabide instituzional eraginkorrakoak prestatzea, kezkaz ikusten baitugu Estatuan bultzada birzentralizatzaile gogorra, lurraldearen borondate politikoa ezagutzen ez duena eta bere pluraltasun eta aniztasunari ezikusi egiten diona.
4. Euskadiri legez aitortutako autogobernuaren defentsa ildo berean, berriro diogu Gernikako Estatutua osorik bete behar dela; eta, horretarako, berriro eman behar diogu balioa Eusko Legebiltzarrak dagoeneko duela hamarkada bi baino gehiago onartu zuen eginkizun, ondasun eta zerbitzu eskuratu gabeen katalogoari, transferentzia prozesua burutzeraz hertsatuaz, baita, aldi berean, indarrean dagoen autogobernua eguneratu beharra aldarrikatzen badugu ere.

5. Beste alde batetik, ideia honetan ere ados gaude: autogobernuaren eztabaidak barrura begirako hausnarketa adostu bati ere aurre egin behar dio, eta, zehazkiago, herrialdea egituratzen duen erakunde arkitekturari buruz, nahiz eta horrek, aurrez, Gernikako Estatutuan diseinatu zen eredua osorik edukitzea eskatzen duen, finantza orekak, erdibanako ardurak eta arrisku partekatuak argituta, eta, egin ere, hausnarketa hori autogobernuaren kanpo dimentsioari buruzko eztabaidaren emaitza –hau da, gure ingurunearekiko zer garen eta hori edo zer izan nahi dugun– nahastu, blokeatu eta baldintzatu gabe egin behar da.
6. Aldaketa prozesu hau hastean konpromisoa hartzen dugu, legegintzaldi honetan, Legebiltzarrak hausnartu, eztabaidatu eta adosteko berariaz duen autogobernu batzorde txostengilea berriro aktibatzeke, bere baitan, ezberdinen arteko adostasunik zabalena bilatuaz, aldaketa giltzatzeko prozesua gidatuko duten oinarri eta printzipioak adostu daitezten.

Batzorde txostengilean dauden taldeek erabaki beharko dute testu artikuludun baten zirriborroaren idazketa lan teknikoa egiteko prozedura egokiena; aztertu eta onartu ondoren, ados dauden legebiltzar taldeek sinatutako lege proposamen baten bitartez Ganberan erregistratu ahal izango litzateke eta indarrean dauden arauen eta legezko prozeduren arabera izapidetuko litzateke, ordenamendu juridikoa, metodo demokratikoak eta herritarren eskubide eta askatasunak begiratuaz.

4.2. AUTOGOBERNU AITORTUAREN DEFENTSA ETA ESKAKIZUNA

Lortutako autogobernuaren aldezpena. Baliabide politiko, juridiko eta instituzionalak.-

1. Eusko Legebiltzarrak edo Jaurlaritzak beren eskumenez baliatuaz onartzen dituzten izaera sozialeko politika publikoetan eskua sartzea, baldintzatzea edo murriztea dakarten Estatuaren ekintzak salatzen eta saihesten arreta berezia jartzeko konpromisoa hartzen dugu.
2. Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluan Estatuari esleitutako eskumen sektorial batean estaldura espres eta argirik ez duten eta zeharkako tituluen gerizan soilik oinarritzen diren estatuak esku hartzeko politika guztiak salatuko eta errefusatzeko lan egingo dugula hitzematzen dugu. Berezi Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak inbaditzeko edo husteko haren 1., 13., 14. edo 18, klausulen erabilera instrumental eta abstraktuak errefusatzeko ditugu.
3. Halaber, euskal Ekonomia Ituna errespetatu gabe eta beronen bitariko batzordeen bilera deialdirik egin gabe eta, kasua bada, bertan arlo ekonomiko-finantzarioko jarduera publiko orotarako neurri egokiak adostu gabe euskal finantza eta zerga politikaren gainean esku hartzea bilatzen duten Estatuaren ekintzak salatzeke eta errefusatzeko konpromisoa hartzen dugu. Gure interpretazioaren arabera, Konstituzioaren 156. artikuluan gerizan koordinazio eskumenak aktibatuta hartzen diren neurri guztiek, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasu konkreturako, aplikatu edo gauzatu aurretik, ezinbestean behar dute alde biak biltzeko organoak edo Ekonomia Itunaren Bitariko Batzordeak bilkura egitea, eta, bestela, Konstituzioaren aurkakotzat joko da Euskadiri dagokionez.
4. Autogobernuaren defentsa arloan eskumena duen sailak ofizioz edo gainerako sailen eskariz koordinatuko du Estatuaren araugintza ekinbideen konstituzio legezkotasunari eta Gernikako Estatutua errespetatzeari buruzko txostengintza. Txosten horiek autogobernuaren defentsa arloan eskumena duen sailak egingo ditu, eraginpeko sektorearen sailari galdetu ondoren.

Euskal autogobernuaren urraketak detektatzen direnean, Espainiako Gobernuari galdatu egingo zaio, lankidetzan gutun baten bidez, auzi gatazkak saihesteko aurreneurriak bilatzen esku har dezan.

5. Autogobernuaren defentsaren arloan eskumena duen sailak, eraginpeko sektorearen sailari galdetu ondoren, Gobernu Kontseilura eramango ditu, legezkotasun txostenekin batera, mota guztietako konstituzio edo auzi prozesuetara jotzeko proposamenak euskal autogobernuaren, Euskadiri esleitutako eskumenen eta Autonomia Erkidegoko erakunde antolakuntzaren defentsarako.
6. Bai Eusko Jaurlaritzak auzi-jartzailea denean bai EAeko arau eta egintzen aurka Estatuak jarritako errekurtsioen ondorioz diren auzietan, autogobernuaren defentsaren arloan eskumena duen sailak lehenengo negoziazioak egitea bultzatuko du, eraginpeko sektorearen sailak lagunduta, Bitariko Elkarlan Batzordean, euskal autogobernua ahalik eta egoera onenean zaintzeko eta, komeni denean, judizializazio konstituzionala eta autogobernuaren interpretazio hutseko epaiak jasotzeko arriskuak saihesteko, gure eskumen eremurako ondorio murriztaileak izan ditzakeen doktrina bat sendotzen joan ez dadin.

Gernikako Estatutuan bete gabe dauden transferentziak burutzea.-

7. EAJk eta PSE-EEK balioztatu egiten dugu euskal autogobernuaren garapenean alderdi biok izan dugun lankidetzak luze eta emankorra. Elkarrekin egin genituen 1993 eta 1995eko txostenak Estatutuaren garapenez eta egiteke zeuden transferentzien negoziazio lehentasunez, Legebiltzarrak onartuak, eta han Estatutua garatzeko egiteke zeuden transferentzien zerrenda zehazten genuen, eta haien balioespen ekonomikoa egiteko berariazko printzipioak ezartzen ziren, bereziki Lan eta Gizarte Segurantzaren blokeari zegokionez (bereziki konplexu eta eztabaidatua baitzen).

Harrezkero eskualdaketa asko gauzatu dira, baina, aldi berean, Estatuak Oinarrizko Lege asko atera ditu, eta euskal autogobernuari kalte egin diote Estatutuaren eskumenak eta ahalmenak murriztu, berrorientatu eta mugatu baitituzte.

8. Iraganean egiteke zeuden transferentzien txostenak onartu zituzten Eusko Legebiltzarraren ebazpenek markatutako ildoari jarraituaz –bereziki, Estatutuaren garapenari buruzko txostena, 1993ko uztailaren 1ean onartua, eta 1995ean egiteke zeuden transferentzien negoziazio lehentasunei buruzko txostena–, Autogobernu batzorde txostengileak oraindik egiteke dauden eskualdaketen katalogoa eguneratzeko proposamena Eusko Legebiltzarrera bidaltzeko eskatuko dio Eusko Jaurlaritzari, eta xehetasunez adieraz dezala zenbateko autogobernu formala eta legez Euskadiri aitortua dugun oraindik gauzatu gabe, Gernikako

Estatutua osatutzat jo ahal izateko.

9. 1993ko eta 1995eko txosten horietatik abiatuta, eta haietan jasotzen diren interpretazio eta jarrerak errespetatuaz, egiteke dauden transferentzien zerrenda hau aurreratu dezakegu:

10. Lehen arloa:

- Langabezia prestazioak
- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala
- Itsasoko Gizarte Institutua
- Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoaren kudeaketa, aldi baterako bosgarren xedapenean Estatutuak xedatzen dituen hitzarmenen arabera
- INSALUD eta INSERSO institutuen ondasun higiezinak, GS Diruzaintza Nagusiaren titulartasunekoak
- Ikerketa eta laguntza teknikoko zentroak (CIAT). Laneko segurtasuna eta higiena
- Soldatak Bermatzeko Funtza (FOGASA)

11. Bigarren arloa:

- Meteorologia
- Aireportuak
- Lagapen erregimeneko autobideak (AP-1 eta AP-68)
- Burdinbide zerbitzu eta azpiegiturak
- Interes orokorreko portuak
- Itsas salbamendua
- CEDEX (herri lanen azterketa eta esperimentazio zentroa)
- FROM (arrantzako eta itsas kultiboetako ekoizkinen merkatua arautu eta antolatzeko funtsa)
- Arrantza ikuskaritza
- Nekazaritza aseguruak
- Farmazia gaiei buruzko legedia betearaztea

12. Hirugarren arloa:

- Lehiaren defentsa
- Kreditua eta bankuak
- Aseguruak
- Kreditu ofiziala
- Balore merkatua
- Estatuaren sektore publikoa
- Hidrokarburoak (petrolio eta gasa)

- Enpresa Txiki eta Ertainen Institutua (IMPI)

13. Laugarren Arloa:

- Unibertsitateko irakaskuntzetan tituluak eta ikasketak homologatu eta baliozkotzea (kontuan hartu ekainaren 28ko 135/2011 Dekretuaren aipamena, unibertsitateaz besteko irakaskuntzen eskualdatzeaz)
- Eskola aseguruia
- ISBN –liburuaren nazioarteko zenbaki normalizatua– eta ISSN esleitzea
- Zinematografia: babes funtsa

14. Bosgarren arloa:

- Ibilgailuen matrikulazioaz eta zirkulazio baimenaz, bai eta gidabaimenez ere, betearazteko eginkizunak
- Segurtasun pribatua
- Udal hauteskundearen erregimena
- Espetxeak

15. Akordio hau sinatzen dugun alderdi politikook, gobernu zentralarekin egin beharreko alde bitako harremanen agendan, Eusko Jaurlaritzak egiteke identifikatzen dituen transferentzien eskakizun eta negoziazioari lehentasunezko tokia gordetzeko lan egingo dugula hitzematen dugu, eta gai hauek garrantzi berezikoak izango direla:

- a) Espetxeak
- b) Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoaren kudeaketa, Gernikako Estatutuak aldi baterako bosgarren xedapenean xedatzen duen moduan

4.3. AUTOGOBERNUA BARRURA BEGIRA. ORAINGO ERAKUNDE ESPARRUARI BURUZKO PROPOSAMENAK

1. Legegintzaldi berriak EAEren sektore publikoaren berregituraketari ekin beharraz kontzientzia argia hartzen jarraitu behar du. Kontzientzia hartze hori plano bitan gertatu behar da. Alde batetik, hertsiki botere betearazlearen planoan, Eusko Jaurlaritzaren barruan egiten diren orotariko eztabaiden eta adierazpen espresen bitartez. Argi dago, gainera, legebiltzarraren planoan dagoela, euskal sektore publikoa birdimentsionatzeaz arduratzen dena, eta legealdi honetan Eusko Legebiltzarrak gai honetan duen kezka agerian geratuko dela berriro.
2. Euskadiren erakunde eredua adostasunez eguneratu eta berraztertzeari ekingo diogula hitzematzen dugu. Ondorio horietarako, Autogobernu batzorde txostengile bera aprobetxatzea mahairatzen da. Batzorde txostengile honen barruan, Euskadiko erakunde eredua hobetuz eta euskal autogobernuak eskatzen duen jokaleku ekonomiko, sozial eta politiko berriari egokituaz, bai “barruko harremanen” bai “kanpoko harremanen” geure arkitektura eguneratu eta berraztertzea bultzatu behar da adostasunez.
3. Erakunde antolakuntza EAE osatzen duten lurraldetako bakoitzaren nortasun sendo eta bereziaren ezagutzan oinarritu behar da.

Baina aldi berean, Autonomia Erkidegoaren erakunde komunen eta Lurralde Historikoen arteko harreman orekatu bat bermatu behar dugu, eta udalak ere txertatu behar ditugu, Euskadiko Toki Erakundearen Legea oraintsu onartu denez gero. Hori guztia, erkidego modernoago eta iraunkor eta berdintsuago baterantz aurrera egiten jarraitzeko.

4.4. EUSKAL ESTATUTU HITZARMENA EGUNERATZEA

Prozedura eta edukia.-

1. Akordio hau izenpetzen dugun alderdi politikook, Euskal Estatutu Hitzarmena eguneratu behar baita, horretan burutuko den prozesu bati ekingo diogula hitzematen dugu. Horretarako, berriro aktibatuko da Legebiltzarrean berriazko batzorde txostengile bat Euskal Autogobernua eguneratzeko, dagokion Batzordearen bitartez. Batzorde txostengile horrek legebiltzar talde guztiek aurreko legegintzaldian utzi zuten dokumentazioa bildu eta artatuko du, bai eta batzorde txostengile horren barruan adituek eta elkarteek egin zituzten txostenak eta agerraldien transkripzioak ere.
2. Gainera, batzorde txostengile honetan autogobernua eguneratzeari buruz oraingo legebiltzar taldeek bertan aurkezten dituzten gai eta ekarpen guztiak eta, kasua bada, taldeok eskatzen dituzten aditu eta erakundeen agerraldi berriak erabiliko dira.
3. Akordio hau izenpetzen dugun alderdi politikook elkarri askatasuna aitortzen diogu batzorde txostengile horretan autogobernuaren arloan bakoitzak bere ideiak eta asmoak aldezteko.
4. Autogobernu batzorde txostengilean ahalik eta adostasun zabalarekin formulazio ireki bat erabaki dadin lan egingo dugula hitzematen dugu, irekia baina konkretua gure autogobernua zaharberitu eta eguneratzeko Oinarri eta Printzipioetan. Oinarri eta Printzipio horien arabera, batzorde txostengileak Gernikako Estatutuaren aldaketa adieraziko duen testu artikuludunaren zirriborro bat lantzeko formula/prozedura egokiena ezarriko/erabakiko du, ordenamendu juridikoa begiratuta. Zirriborro proposamen hori, egiteko agintzen denetik zortzi hilabeteko gutxi gorabeherako epean idatzi beharko da eta Eusko Legebiltzarrak lege proposamen modura izapidetuko du, indarrean dauden arau eta prozedura juridiko eta legezkoak eta biltzar legegilearen araudian ezarritakoak jarraituaz.

Batzorde txostengile horren barruan eztabaidatu, adostasuna bilatu eta erabakitzeko, legebiltzar taldeek mahairatu nahi dituzten proposamen/gai guztiak jorratuko dira, besteak beste:

- ✓ Euskadi nazioa dela aitortzea.
- ✓ Euskal Herriak erabakitzeko eskubidea duela eta une bakoitzean indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren barruan negoziazio eta akordio esparru batean hitzartuta gauzatu ahalko duela aitortzea.
- ✓ Konstituzioa aldatzea, euskal autogobernuaren ahalmenak zabaltzeko eta gure eskumen esparrua blindatzeko.
- ✓ Euskal autogobernua sakontzea eta hobetzea, Estatu osoarekiko elkarbizitzan eta elkartasunean.
- ✓ Gai sozialetan sakontzea. Euskal herritarren eskubide eta betebeharrak zabalduko dituen araugintza berria.
- ✓ Herrialdearen erakunde eredua eta erakunde komunen eta lurralde historikoen zeregina zehaztea.
- ✓ Erakunde komunen zerga arloko araugintza ahalmena zehaztea, une bakoitzean indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.
- ✓ Euskadiren eskumen eskusiboaren identifikazio argia.
- ✓ Elkarrenganako errespetuan oinarritu eta Ekonomia Itunaren sistemaren bitartez bermatutako ekonomia eta finantza harremanak.
- ✓ Nafarroako Foru Erkidegoarekin eta Frantziako Estatuan kokatuta dauden euskal lurraldeak etorkizunean bilduko dituen erakunde bakarrarekin lurralde arteko harremanak, bakoitzaren erakundearen borondatearen arabera, eta lurralde bakoitzaren eta estatuen arloko araudiak begiratuta, bai eta Europar Batasunarenak ere.
- ✓ Euskararen sustapena, kultura ondare komuna delako euskararekiko konpromisoa eta begirunea.
- ✓ Euskadik Europako eta nazioarteko erakundeetan ordezkari izatea, eta bere kanpo proiektzioa.
- ✓ Lortutako itun politiko berria alde bakarretik aldatzea galaraziko duen berme sistema hitzartua.
- ✓ Eskubide Historikoen erreserba klausula Konstituzioan eta Gernikako Estatutuan jasota dagoen hitzekin mantentzea.

5. Legebiltzarreko batzorde txostengileak, Estatutua Aldatzeko Proposamen bat Legebiltzarrean formulatzeari buruz talde politikoen oinarrizko akordio bat ahalbidetuko duten elkarrizketa, eztabaidak eta negoziazioak burutzeko beharrezkoa den denbora hartuko du, gero Legebiltzarreko organo eskumendunek izapidetu dezaten.
6. Eskumena duten erakundeek Proposamenaren negoziazio, itun, izapide eta onarpen prozesuak hezurmamitutakoan, horiek hartzen dituzten akordioak herritarren erabakipean jarriko dira, erreferendum bidez berrets ditzaten.

EUSKO JAURLARITZAREN ETA EAJ-PNV ETA PSE-EE LEGEBILTZAR TALDEEN ARTEKO FUNTZIONAMENDU ETA KOORDINAZIORAKO AKORDIOA

1. Funtzionamendua eta koordinazioa Eusko Jaurlaritzaren baitan.

EAJ-PNV eta PSE-EE alderdi politikoez, Eusko Jaurlaritza eratzeko koalizio akordioaren sinatzaileek, honen bidez hitzematzen dute Eusko Jaurlaritzaren jardunarekiko jarrera leiala erakutsiko dutela eta Eusko Jaurlaritzaren baitan adostuko diren akordioak adostasun, akordio eta lan koordinatuaren bidez hartuko dituztela. Xede horrekin, Eusko Jaurlaritzaren barruan, esandako koordinazio hori bermatuko duten mekanismo zehatzak ezarriko dira.

Sor litezkeen irizpide ezberdinak elkarrizketaren eta akordioaren bidez ebatziko dira. Ezbaiek bere horretan jarraituko balute, akordio honen barruan sortu den Gobernu itunaren Jarraipen Batzordera eramango dira.

2. Funtzionamendua eta lankidetzaren Eusko Legebiltzarren baitan.

Ituna izenpetu duten alderdiek beren gain hartu dute “Enplegu gehiago eta hobia, gizarte oreka gehiago, elkarbizitza gehiago eta autogobernu gehiago eta hobia dituen Euskadi eraikitzeke zutabeak” izenburuko Gobernu Akordioa, XI. Legealdirako adostu dena eta agiri honek osatzen duena; eta Legebiltzarrean Jaurlaritza babesteko dutela hitzematzen dute, bakoitza bere Legebiltzar Taldearen bidez (Euzko Abertzaleak-Nacionalistas Vascoz eta Sozialistas Vascoz-Euskal Sozialistak).

Xede horrekin, hurrengo arau hauek ezarri dira:

Lehen: JAURLARITZAREN LEGE EGITASMOEI dagokienez, akordioa izenpetzen duten EAJ-PNV eta PSE-EE alderdiek, beren Legebiltzar Taldeen bidez (Euzko Abertzaleak-Nacionalistas Vascoz eta Sozialistas Vascoz-Euskal Sozialistak), babesa emango diete esandako egitasmo horiei.

Aipatu lege egitasmo horiei, egoki jotzen bada, zuzenketak aurkeztu behar bazaizkio, zuzenketa horiek Legebiltzar Talde bietako bozeramaileek izenpetuko dituzte eta ezin izango da zuzenketarik alde bakarretik aurkeztu.

Gainerako Legebiltzar Taldeek aurkeztuko dituzten zuzenketei dagokien aldetik, zuzenketa horiek onartzeko edo transakzio zuzenketak adosteko, ezinbestekoa izango da Euzko Abertzaleak-Nacionalistas Vascoz eta Sozialistas Vascoz-Euskal Sozialistak Legebiltzar Talde bien onespena.

Metodologia berberak gidatuko du gainerako ekimen legegileetarako prozedura: Beste Legebiltzar Taldeen Lege Proposamenak, Herri Ekimen Legegileak edo

Herrialde Historikoetako Batzar Nagusiek aurkeztutako Lege Proposamenak.

Arestiko guztia ulertzen da, laugarren atalean, alderdi politiko biek autogobernuaren erreformarako proposamenei buruz, Autogobernu Lantalde barruan, alderdi biek elkarri aitortzen dioten askatasunaren kalterik gabe.

Bigarrena: GOBERNU JARDUNARI BULTZADA EMATEKO EKIMENEI dagokionez (Legez besteko Proposamenak, Ebazpen Proposamenak eta Mozioak) ezinbesteko joko da Euzko Abertzaleak-Nacionalistas Vascoak eta Sozialistas Vascoak-Euskal Sozialistak Legebiltzar Taldeek onestea eta, aldez aurretik, Euzko Jaurlaritzak ontzat ematea.

Beste Legebiltzar Taldeek GOBERNU JARDUNARI BULTZADA EMATEKO aurkeztuko dituzten ekimenei dagokienez, Euzko Abertzaleak-Nacionalistas Vascoak eta Sozialistas Vascoak-Euskal Sozialistak taldeen jarrera elkarren artean adostuko da eta, aurretiaz, Euzko Jaurlaritzari kontsultatuko zaio.

Era berean, halabeharrezkoa izango da talde bien artean adostea eta Jaurlaritzari kontsulta egitea, ekimen horiei zuzenketak aurkeztu nahi zaizkionean edo transakzio-zuzenketak proposatu nahi diren kasuetan.

Akordio honi zor zaion leialtasuna betez eta izenpetzen duten alderdi biei Akordioaren 4. atalari dagozkion ekimenak aurkezteko orduan askatasuna aitortzen zaielarik, alderdi biak eta Euzko Legebiltzarrean ordezkatzeko dituzten legebiltzar taldeak, lehenengo eta behin, talde bien artean transakzio-akordioa adosten saiatuko dira autogobernuari buruzko Legez besteko Proposamenak edo mozioak aurkezten direnean, eta elkarren arteko ulermena ezinezkoa denean baino ez diote elkarri beste taldeekin adosteko askatasuna aitortuko.

Ekimen horiek Gobernu Egitasmoaz besteko auziei buruzkoak direnean eta Euzko Jaurlaritzaren jardunari kalte egiten ez zaionean, Legebiltzar Talde bakoitzak bere jarrera bere kabuz ezarri ahal izango du eta nahikoa izango da Talde bien artean aurretiaz komunikatzea eta berri ematea.

Hirugarrena: JAURLARITZARI KONTROLA EGITEKO EKIMENEI dagokienez (Informazio eskariak, ahoz edo idatzita erantzuteko galderak, interpelazioak, Agerraldi Eskariak) Legebiltzar Talde bien artean adostuta egingo da (Euzko Abertzaleak-Nacionalistas Vascoak eta Sozialistas Vascoak-Euskal Sozialistak).

Laugarrena: Euzko Abertzaleak-Nacionalistas Vascoak eta Sozialistas Vascoak-Euskal Sozialistak taldeen ekimenez BATZORDE BEREZIAK ETA LANTALDEAK eratzeko orduan, Talde bien arteko adostasun bidez egin beharko da. Era berean jardungo da gainerako Taldeek batzordeak edo lantaldeak eratzeko aurkez ditzaketen proposamenei aurrean.

Gobernu akordioaren 3. eta 4 kapituluek ezartzen dute EAJ-PNVren eta PSE-EE alderdien artean hitzartutako gaien inguruko ponentziak eratzeko prozedura.

Bosgarrena: Legebiltzarreko eztabaidetan-Osoko Bilkuran zein Batzordean- ekimen legegileei, sustatzeko edo kontrola egiteko ekimenei dagokienez, Euzko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos eta Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak taldeetako legebiltzarkideek Eusko Jaurlaritzari babesa emateko irizpidearen eta talde bien artean izenpetutako gobernu akordioaren arabera egingo dituzte beren adierazpenak.

Seigarrena: Eusko Legebiltzarreko Mahaiko Legebiltzar Talde bi hauetako kideek jarrera bateratua izango dute Eguneko Aztergaien zerrendan jasoko diren gaiak izapidera onartzeari eta kalifikatzeari dagokionez. Ezbairik balego, Mahaiburuak ezarritako irizpidearen arabera jardungo lukete.

Zazpigarrena: Eusko Jaurlaritzari babesa ematen dioten Legebiltzar Taldeek beren artean etengabeko komunikazioa izango dute eta etengabeko koordinazioa zainduko dute akordio hauek guztiak behar bezala beteko direla bermatzeko. Helburu horrekin, koordinazio horrek eskatuko dituen mekanismo zehatzak ezarriko dira.

Zortzigarrena: Sortuko diren irizpide ezberdinak, jarrera ezberdinak elkarriketaren eta akordioaren bidez hurbilduaz ebatziko dira. Akordio ezak irauten badu, ezbaia Jarraipen Batzordean aztertuko da.

JARRAIPEN BATZORDEA

EAJ-PNV eta PSE-EE alderdien artean “Enplegu gehiago eta hobe, gizarte oreka gehiago, elkarbizitza gehiago eta autogobernu gehiago eta hobe dituen Euskadi eraikitze zutabeak” izenburuko agirian eta Eusko Jaurlaritzaren eta EAJ-PSE-EE legebiltzar taldeen arteko funtzionamendu eta koordinaziorako akordioaren bide adostutakoen jarraipenerako Batzordea eratuko da. Batzorde hori osatuko dute alderdi politiko bakoitzeko lau ordezkariak.

Jarraipen Batzordea, gutxienez, urtean behin edo akordio hauek izenpetzen duten edozeinen eskariz batzartuko da akordioetan ezarritakoa betetzea xede eta sor daitezkeen ezbaiak ebazteko.

Euzko Alderdi Jeltzaleak, bere izenean Andoni Ortuzar Arruabarrenak, eta Euskadiko Alderdi Sozialista-Euzkadiko Ezkerra (PSOE) alderdiak, bere izenean Idoia Mendia Cuevak, Euskal Autonomi Erkidegoaren gobernagarritasunerako AKORDIO hau izenpetzen dugu XI. Legealdirako, Iñigo Urkullu Renteria Lehendakariaren aurrean izenpetzen dugu.

AKORDIOAK aurreikusten du ENPLEGU GEHIAGO ETA HOBEA, GIZARTE OREKA GEHIAGO, ELKARBIZITZA GEHIAGO ETA AUTOGOBERNU GEHIAGO ETA HOBEA DITUEN EUSKADI ERAIKITZEKO ZUTABEAK agirian aipatzen den gobernu egitasmoa.

Era berean aurreikusten du EUSKO JAURLARITZAREN ETA EAJ-PNV ETA PSE-EE LEGEBILTZAR TALDEEN ARTEKO FUNTZIONAMENDU ETA KOORDINAZIORAKO AKORDIOA.

EAJ-PNVren aldetik

PSE-EE (PSOE)ren aldetik

Andoni Ortuzar Arruabarrena

Idoia Mendia Cueva

Iñigo Urkullu Renteria
LEHENDAKARIA